

ek!

eta kitto!
euskara elkarte

2023ko maiatzak 19 · 1271 zenbakia

ALKATEGAIK HERRIARI BEGIRA



Recalde

Clínica Oftalmológica
Oftalmologi Klinika

Fokatu hemen
zure mugikorrarekin
eta iritsi
gure webgunera



·Kataraten eta presbiziaren kirurgian espezialistak.

Plaza Barria, 2. 2º
Tel.: 943 201 844 - EIBAR
www.clinicarecalde.com

AURREMATRIKULA MAIATZAREN 8tik 26ra

★
KASITEXE PUBLIKO
DOANEA



F
M
A
I



- EGOKITZAPEN FISIKOA
- GIZARTE ETA KIROL IRAKASKUNTZA ETA ANIMAZIOA
- NAZIOARTEKO MERKATARITZA
- GARRAIO ETA LOGISTIKA
- MERKATARITZA JARDUERAK
- ADMINISTRAZIOA ETA FINANTZAK
+ Administrazioa eta Finantzak eskaintza partziala arantsaldiez.
- ADMINISTRAZIO KUDEAKETA
- SAREKO INFORMATIKA SISTEMEN ADMINISTRAZIOA
- WEB APLIKAZIOEN GARAPENA
- PLATAFORMA ANITZEKO APLIKAZIOEN GARAPENA
- SISTEMA MIKROINFORMATIKOAK ETA SAREA

ESPEZIALIZAZIOAK
ZIBERSEGURTASUNA,
INFORMAZIOAREN
TEKNOLOGIEN
INGURUNEETAN

www.uni.eus

Otaola Hiribidea, 29 | 20600 Eibar, Gipuzkoa | 943 29 92 11 | izakantza@uni.eus | @UniEus

3 EKAINA 2023 Errebal Plaza 10:00etatik 14:00etara EIBAR UDAKO BIGARREN ESKUKO AZOKA



ERRESERBATU MAHAI BAT behar ez dituzun eta egoera onean dauden gauzak saltzeko. Eibarko elkarte, ikastetxe eta herritar guztiak har dezakete parte. **BI AUKERA:**

- 1- Erreserbatu salmenta-postu bat (mahai bat) eta zerorrek saildu erabiliteko zure gauzak. Nahitaezkoa da aurrez emeserba egitea.
- 2- Gordailu-salmentan utzi zure objektuak (10 gehienez) eta antolakuntza-taldekoak arduratuko dira salmentaz. Ezin dira eraman: arropa eta osagaiak, bolumen handiko altxariak... Egunean bertan eraman gauzak 9:00etatik 10:00etara. Ez dago izena eman beharrik.

OHARRA:

Nagusiki udako urtaroen eta oporaldiaren lotutako objektuak eramatea eskatzen da. **Izena emateko epea: maiatzaren 19tik 30era.**

TAILERRA

Bira ezazu zure ziba planeta zaintzeko!
Errebal Plaza, 11:30etatik 14:00etara (DOAN)
Adina: 3-12 urte (5 urteik beherakoak heldu batez lagunduta) Iraupena 25 min.
Bost txanda aukeran, 11:30etik 13:30era.
Plaza mugatuak. Hartu zure txanda egun berean!

Informazioa eta izen-emateak:
www.merkabi.eus/eibar
tel. 943 670 249



Egoera onean dauden erabiliteko objektuak berri-ero erabiliz, hiri hondakin gutxiago sortzea lortzen dugu



udalsarea 2030
eremu partzidulari erabiliteko azken
urteko plan estrategikoa



Jarraitu gaitzazu!



@etakitto



etakitto.eus

Taldeak maila gorenera igotzea lortu duela eta, Eibarko emakumezkoen lehen taldeko kideak omendu dituzte udaletxean. Emakumezkoen taldea omentzeko ekitaldiek zapatuan izango dute jarraipena, gizonezkoen lehen taldeak Ipuruan Sportingen aurka jokatu duen partiduan.



ARGITARATZAILA

...eta kitto! Euskara Elkarte

HELBIDEA

Urkizu, 11 · 20600 Eibar

TELEFONOAK

943 20 67 76 / 943 20 09 18
603 598 285

FAXA 943 20 28 72

ASTEKARIAREN E-MAILAK

erredakzioa@etakitto.eus
komunikabideak@etakitto.eus
publizitatea@etakitto.eus

ELKARTEAREN E-MAILAK

elkarte@etakitto.eus
normalizazioa@etakitto.eus

ERREDAKZIO-KONTSEILUA

Ana Aizpurua, Ekhi Belar, Jose
Luis Gorostegi, Silbia Hernandez
eta Yanire Sagredo

ADMINISTRAZIOA

Marisol Uriarte

KOORDINATZAILEA

Ana Aizpurua

ERREDAKZIO-BURUA

Silbia Hernandez

DISEINUA

Maku Oruezabal

MAKETAZIOA

...eta kitto! astekarria

HIZKUNTZA ARDURA

Maidar Aranberri

PUBLIZITATEA

Belen Ulazia

TELEFONOA

943 20 67 76

AZALEKO ARGAZKIA

Silbia Hernandez

BANAKETA-ARDURA

Idoia Labado

TIRADA

7.800 ale

INPRIMATEGIA

GERTU koop. (Oñati)

COPYRIGHT-A

...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA

SS/430/92. ISSN: 1132 - 1679



("...eta kitto!" k ez du bere gain
hartzten aldizkarian adierazitako
esanen eta iritzien erantzunkizunik)

Eibarko Udalak eta
Gipuzkoako Foru Aldundiak
lagundutako aldizkaria



EIBARKO UDALA



Gipuzkoako Foru Aldundia

Eskutitzak



Eibarko kirolean giro erdalduna nagusi

Zorionak Eibar taldeko neskei, merezitako agurra jaso duzue-eta, aste honetan Untzaga plazan bildutako zaletuengandik. Hala ere, pena izan da zuen garaipenaren ospakizunean sortutako giroa hain erdalduna izatea. Udaletxeko balkoira irten eta, berba egiterakoan, jokalariek hizkuntza biak, euskara eta gaztelera erabili zituzten, baina lehenengo erderaz egin zuten, eta gero euskaraz. Eta animatzeko kantu guztiak ere erdera hutsean izan ziren. Nesken taldeak egin duen lana oso ona izan da, zoriontzeko modukoa, baina pena da Eibarren kirolaren inguruan dagoen giro erdalduna.

E.Z.

Astean esanak



Iazko urtarrilaren 15ean sumendi erupzio ikaragarria izan zen Tonga artxipielagoan. Itsasoan izan zen, 150 metroko sakoneran, eta eragindako tsunamiaren ondorioak gurean ere, handik 18.000 kilometrora, nabari izan genituen. Ur-lurrin kopuru handiak jaurti zituen atmosferara eta, negutegi-efekturako gasa izateaz gain, horrek CO2 ospetsuak baino askoz ere bero handiagoa hartzen du. Adituek diote erupzio horren eragina bost urtetan nabarituko dugula Lurrean, asko berotuko delako. Eta, bizitzen dihardugunaren zergatia aldaketa klimatikoari bizkarreratzen diogun honetan, zergatik ahazten dugu sumendi horren eragina?

FELIX ARES, zientzialaria

Farmaziak

BARIXAKUA 19

EGUNEZ | Zulueta (San Agustin, 5)

ZAPATUA 20

EGUNEZ | Elortza (J. Gisasola, 18)

DOMEKA 21

EGUNEZ | Iraundegi (Calbeton, 19)

ASTELEHENA 22

EGUNEZ | Mendinueta (Urkizu, 6)

MARTITZENA 23

EGUNEZ | Azkue (T. Etxebarria, 4)

EGUAZTENA 24

EGUNEZ | Zulueta (San Agustin, 5)

EGUENA 25

EGUNEZ | Barandela (Z. Agirre, 4)

BARIXAKUA 26

EGUNEZ | Castaño (J. Etxebarria, 7)

GAUEZ BETI, 2023an,
Castaño (J. Etxebarria, 7)

Telefono jakingarriak

SOS deiak	112
Pegora	010
Udaletxea	943 70 84 00
Portalea	943 70 84 39
Udaltzaingoa	943 70 84 24
Mankomunitatea	943 70 07 99
Debegesa	943 82 01 10
KIUB	943 20 38 43
Kirol Patronatoa	943 20 32 40
Epaitegia	943 03 34 00
Iberdrola	900 17 11 71
Naturgas	902 12 34 56
DYA Larrialdiak	943 46 46 22
Gurutze Gorria	943 22 22 22
Eibar Ospitalea	943 03 29 00
Mendaro ospitala	943 03 28 00
Anbulategia	943 03 25 00
Torrekoa	943 03 26 50
Errepideak	902 11 20 88
Ertzaintza	943 53 17 00
Eusko Tren	944 33 33 33
Lurraldebus	900 30 03 40
Pesa	900 12 14 00
Taxiak	943 20 30 71 / 943 20 13 25
Andretxea	943 70 08 28
Alkohol. Anon.	629 14 18 74
Al-Anon / Alateen	650 26 59 63
Grupo Egun Bat (Jokozale	
Anonimo eta Familiak)	699 37 75 20

Hildakoak

- **Francisco Rodriguez Zafra**. 78 urte. 2023-05-11.
- **Abundio Maestro Martin**. 88 urte. 2023-05-12.
- **Roberto Oregi Gisasola**. 62 urte. 2023-05-13.
- **Maria Isabel Alberdi Zinkunegi**. 70 urte. 2023-05-14.
- **Salesa Dieguez Nuñez**. 94 urte. 2023-05-15.
- **Petra Velasco Rodriguez**. 97 urte. 2023-05-16.

Jaiotakoak

- **Alana Isasi Alcoba**. 2023-05-10.



Jon Iraola (PSE-EE)

“Lehen eguneko gogo berari eusten diot, etorkizuneko Eibar jasangarria, berdinzalea eta solidarioa izan dadin”

Zerk motibatu zaitu alkategai izateko zeurre burua aurkeztera?

Funtsean, nire hiriaren alde lan egiteko eta bizilagunen bizi-kalitatea hobetzeko nahiak. Horrek bultzatu ninduen orain dela urte batzuk Eroskin egiten nuen lana albo batera lagatzera eta udalerriko bizitza politikoa murgiltzera. Eibar gidatzeko, bertako buru izaten jarraitzeko eta nire harri-koskorra jartzeko lehen eguneko gogo berari eusten diot, nire hiriak aurrera egin dezan, eta etorkizuneko

Eibar jasangarria, berdinzalea eta solidarioa izan dadin, hala izan behar du-eta.

Alkatetza lortzen baduzu zein izango da egingo duzun lehenengo gauza?

Ba, orain arte bezala, lehen eguneko gogo eta interes berarekin lan egiten jarraituko dut, 2021eko martxoan Alkatetza eskuratu nuenetik markatzen ari naizen lan-ildoari jarraituz. Niretzat, hauteskunde sasoiaren egoteak ez du ezer aldatzen helburuei edo lan-erritmoari dagokionez.

Zuretzat zeintzuk dira Eibarrek gaur egun dauzkan premia nagusiak? Eta zer planteatzun duzu horiei erantzuteko?

Erronketako bat hiriaren ekialdea berronertzea da, aspalditik ari gara horretan lanean, proiektu eraldatzaileak prestatzen, hala nola Hijos de Gabilondo lantegi-etxe zahararren birgaitzea, Estaziñotik Azitaineraino trenbidearen gaineko pasealekua eraikitzea, Barrena kaleko Lapeyra industria-eraikin zaharrea babestutako etxebizitza gehiago egitea edo Txontan eta Murrategin milioi asko inbertitzea. Beste erronka garrantzitsu bat Udaletxea-Errebal oinezkoen ardatza sortzea da. Hau da, jendearentzako gun eklusiboa, autorik gabekoa, eta azken urteotan horren diseinuan lanean aritu gara. Ondo definitutako ibilbide-orria duen proiektua da, eta gauzatu ahal izateko dagoeneko aurkeztu ditugun bi obra garrantzitsu behar ditu: Ardantzan aparkaleku berri bat egitea, 52 ibilgailurentzako edukierarekin, eta anbulatorioko parkea eta Julian Etxeberria kalea berrurbanizatzea. Arraguetako berrurbanizazioa ere nabarmendu nahi dut, dagoeneko aurkeztu



“Ziur nago Estaziño-Azitaín pasealekuaren proiektua oso onuragarria izango dela hiriarentzat, eta herritarren bizi-kalitatea hobetuko duela”

baitugu horretarako proiektua. Aparkaleku gehiago Urki eta Ubitzarako, auzoa berrurbanizatuta, eta hobekuntza garrantzitsuak Amañako eta Ipuruako irisgarritasunean.

Euskal kulturak eta euskarak zein lehentasun daukate zeuen programan?

Gure kultura eta hizkuntza lehentasuna izan dira eta izaten jarraituko dute. Zentzu horretan, Euskara Sailak Eibarren euskararen erabilera bultzatzeko eta areagotzeko egunero egiten duen lana goraiatzeko modukoa da. Orain dela hilabete batzuk, adibidez, Urrezko

Bikain Ziurtagiria, euskararen erabileraren kalitatea neurtzen duen aintzatespen gorena jaso genuen Udalean. Eta, gainera, gure apustua irmoa da, baita ere, hirian euskararen eta gure kulturaren alde lan egiten duten kolektibo eta erakundeek ematen dizkiegun laguntza ekonomiko eta lankidetzaren bidez. Izan ere, funtsezkotzat jotzen ditugu, eta egiten duten lanaren garrantzia eta egiten duten ahalegina eskertu behar zaie. **Estaziño-Azitaín pasealekuaren proiektuak bizilagun askoren kezak eragin ditu. Zer daukazue proiektu horren inguruan esateko?**

Hiriarentzat proiektu estrategikoa da. Beti ikusi izan dugu horrela, eta beti egin izan dugu haren aldeko apustua jendeaurrean, publikoki, eta modu erabat gardenean. Egia da proiektuak afekzioak dituela bizilagun batzuentzat, baina inoiz ez dugu hori ukatu, eta, une oro, kalte horiek ahalik eta gehien murrizten saiatu gara. Adibidez, jatorrizko trazadura aldatzea proposatuz, obra osatuko duten hiri-ingurunerako hobekuntzak proposatuz edo, are gehiago, Electrocicloseko (BOE) beheko solairuetako bizilagunei beraien etxebizitzak Eusko Jaurlaritzari saltzeko aukera edo, nahi izanez gero, beste etxe batzuentatik trukatzeko planteatuz. Ziur

nago proiektua oso onuragarria izango dela hiriarentzat, eta herritarren bizi-kalitatea hobetuko duela, oro har. Ez dugu ahaztu behar proiektu hau ekialdeko eremuan gauzatuko ditugun eta osatzen duten beste proiektu batzuekin lotuta dagoela.

Errebal Merkatu Plazaren auziak desilusia eta, kasu batzuetan, haserrea eragin du herritarren artean. Zein irakurketa egiten du zuen alderdiak?

Errebalen proiektuak intoxikazio eta desprestigio kanpaina triste eta interesatu bat jasan zuen, interes politiko argiekin, eta gobernu-taldea ahultzeko helburu bakarrarekin. Bereziki tristea izan zen iritzi publikoa gezurrekin manipulatu nahi izatea, base-ritarren eta Rialtoko plazan postuak zituztenen egoerari buruz gezurrak esanez, udal gobernuari kalte egiteko asmo bakarrarekin. Batzuentzat politikan denak balio duela agerian lagatzeko adibiderik garbiena izan zen. Inolako eskrupulurik gabe.

Gogoratu beharra dago Errebal herritarren partaidetza-prozesu baten emaitza dela. Eta, gainera, gure Udaleko osoko bilkurak aho batez onartu zuela proiektua. Ukaezina da obra egiteko arazoak egon zirela, eta arazo horiei aurre egin eta kudeatu egin behar izan genituela. Adibidez, Dragadosekin zegoen kontratua bertan behera utzi behar izan zen, udala muturreko egoera batera eramaten ari zen-eta. Eskuak ez zigun dardar egin. Eta,aldi berean, Dragadosek 300.000 eurotik gorako kalte-ordaina eman zigun. Beraz, arrazoi pixka bat izango genuen. Honek urtebete geldiarazi gintuen, eta gero pandemia etorri zen. Hala eta guztiz ere, Errebal hiriarentzat erakarpen-gune berri bihurtzea lortu dugu, espazio kultural berri bat, kalea onera ekarrita, eta bizilagunek oso ondo baloratzen duten aisialdirako gune atsegin eta polita sortuta. Horrez gain, hiriaren erdigunean aparkalekuaren arazoa murrizten lagundu dugu, 200 plaza berrirekin. Bai eta Merkatu Plaza berria martxan jarri ere, eta azoka hori garatzeko lanean jarraitzen dugu.

Zeintzuk izan beharko lirateke, zure ustez, industriaren aldeko politikak?

Ezer baino lehen, Gipuzkoako Foru Aldundiari eta Eusko Jaurlaritzari hiriko indus-

tria-sarea berreskuratzearen aldeko apustua egiteko eskatu nahi diet. EAJren esku dauden industria-arloko eta garapen ekonomikoko politikak Eibar albo batera lagatzen ari dira, modu sistematikoan. Matsariako SPRIren pabilioietara begiratu besterik ez dago: merkatutik kanpora dauden prezioak dituzte, eta urteetan ez da ezer egin egoera bideratzeko, Eibarren daukagun lurzoru beharrarekin. Gure eskumenetan oinarrituta, Udalak ekin-tzaitzaren eta industria-enpleguaren aldeko apustua egiten jarraituko du, eta ideia eta proiektu berritzaileak dituzten pertsonen horiek garatu eta antzeko ezaugarriak dituzten beste enpresa batzuekin partekatu ahal izateko espazioak sortzen jarraituko du. Gainera, laguntza programak eta deialdiak bultzatzen eta babesten jarraituko dugu, Eibarko industria-sarea indartzeko proposamenak gauzatzen eta ezartzen laguntzeko.

“Gipuzkoako Foru Aldundiari eta Eusko Jaurlaritzari hiriko industria-sarea berreskuratzearen aldeko apustua egiteko eskatu nahi diet”

Nola uztartu daitezke, batetik, Eibarren oinezkoentzat espazioa lortzea eta, era berean, dagoen aparkaleku faltari erantzuteko neurriak aplikatzea?

Lehen aipatu dudan erdialdea oinezkoentzat jartzeko proiektua funtsezkoa da. Ezinbestekoa da erdigunean horren garrantzitsua den espazioa berreskuratzea. Baina modu ordenatuan egin behar da, lehenago gure programan planteatzen ditugun bezalako aparkaleku-irtenbideak eskainiz. Ardantzan bezala, adibidez, baina baita beste eremu batzuetan ere, hala nola Matsarian, Urki/Ubitxan edo Amañan. Horrek aukera emango digu eremu horietarako asmo handiko planteamenduak egiteko, espazio libre gehiago sortzeko. Oso beharrezkoak dira eta herritarrek behin eta berriz eskatzen ari dira. Gure helburua argia da, eta hori da gure lehentasun nagusietako bat.



Josu Mendicute (EAJ-PNV)

“Apostu garbixa egin bihar dogu kalietatik ahalik eta trafiko gehixen kendu eta bizitzeko espaziuak berreskuratzeko”

Zerk motibatu zaitu alkategai izateko zeure burua aurkeztera?

Eibarrendako asmuak dakadaz, helburuak. Herrixaren alde egin dot beti eta herrixaren aldeko ekimenetan jarraituko dot beti. Alkate izatia Eibar aurrera eruateko aukera bat da, eta lidergo barri baten premiña dakagu herrixan. Eibarrek erronka asko dakaz, erronka horiei erantzuteko egitasmo serixo bat dakagu eta lantalde bikaina dakat albuari horretarako.

Alkatezta lortzen baduzu zein izango da egingo duzun lehenengo gauza?

Kaliak hobeto garbittu. Eta alkate banaiz, egunero egingo dogu, ez soilik hauteskundietan.

Zuretzat zeintzuk dira Eibarrek gaur egun dauzkan premia nagusiak? Eta zer planteatzen duzu horiei erantzuteko?

Eibarrek aurrera egin bihar dau. Gaur egun geldirik gelditzia atzian geratzia da. Lan aukera gehixago eta hobiak sortu bihar doguz,

berdegune gehixago lortu eta arbolak landatu. Hazteko eta sozializatzeko espaziuak falta jakuz, bizitzeko kale eta plazak. Horretarako, mugikortasuna birpentsatu biharra dakagu eta, horrekin batera, erronka ekologiko bati egin bihar detsagu aurre. Eibarrek aurrera egin bihar dau.

Guk 3.000 aparkaleku perimetraletik gora egin nahi doguz, kaliak pertsonendako berreskuratzeke: bizitza sozialerako espazio barrirak lortzeko, eta herri barruan berdegune gehixago sartzeko. Eta arbolak. Alkate banaiz, 100 arbola landatuko doguz agintaldi hasieran. Bizitzeko hiri atsegiñagua lortu nahi dogu, Eibar erakar-garriaguna egin. Bide horretan, kultur-egitarauan gehixago sakondu nahi dogu, eta tokiko merkataritzaren alde egin.

Horrekin batera, ekintzailletza bultzatzeko proposamenak dakaguz eskuartian. Eta proiektu horiek enpresa bihurtzen diranian be, Eibarren jarraitzeko egitasmuak proposatzen doguz. Eibar bizitzeko eta lan egitteko leku hobia izatia nahi dogulako.

Hiru gauza nabarmenduko nittuzke: bat, erronka horiei erantzuten detsen proiektua dakagula. Bi, proiektu hori aurrera eruateko lantalde prestatu batekin aurkezten naizela. Eta hiru, gaittasuna dakagula erakunde guztixak batu eta norantza berian, Eibarren alde lan egitteko. Hiru baldintza horiek EAJ-PNVk betetzen ditte.

Euskal kulturak eta euskarak zein lehentasun daukate zeuen programan?

Programan bezain garrantzitsua da jarreran: guk euskeriaren alde bai, baina baita euskaratik eta euskaraz lan egingo daben lantaldia eskintzen dogu. Euskeriari lehentasuna emon bihar jako jarduera kulturaletan, kirolian, lan-eremuan. Guk ez dogu nahi erderaz pentsatutako herrixa, itxuraz elebitan aurkeztutakua. Euskeria Eibar hobia eraikitzeke tresna da. Amaitziar dagan agintaldi honetan EAJ-PNVk geldiarazi ditte udal gobernuaren murrizketak euskerian arluan. AEK euskaltegixa eta ...eta kitto! Euskara Elkartea izan bihar ziran kaltetuak. Horrek esaten dau zerbait batzuen eta bestien ikuspegiaren inguruan! Neurri zihat batzuk aipatziarren: udal langilliak hautatzeko hizkuntzen profillari dagokion garrantzia emango detsagu. Alkarlana

bideratuko dogu alkartiek eta enpresek egitten dituen jardueretan euskeriaren presentzia izan dadin, gitxienez, erdixa. Antzerki jardunaldixetan, obren erdixa gitxienez euskaraz jarriko doguz. Eta bardin egingo dogu kultur egitarau osuakin.

Jaixetan, lehentasuna emango detsegu euskal taldieri; neri sinesteziña egitten jata oindiokan Eibarren ez dittugula izan Zetak, Izaro edo Bulego. Beste talde batzuk, Skakeitan adibidez, JHJk ekarrirta. Baina Udalaren ekimenez gitxi. Su Ta Gar, zenbat urtian behin? Gozategi be, azkenekoz oin dala 16 urte. Eibarko gazte askorendako bizitza osua da. Jaixetan erdal taldieri ez detsegu atiak itxiko, baiña euskal talderik onenen kontzertu askoz gehixago egingo doguz. Sensibilidade kontua da. Eibartarrok udal gobernu euskalduna merezi dogu.

“Euskeriaren alde bai, baina baita euskaratik eta euskaraz lan egingo daben lantaldia eskintzen dogu”

Estaziño-Azитайn pasealekuaren proiektuak bizilagun askoren kexak eragin ditu. Zer daukazue proiektu horren inguruan esateko?

Emondako hitza bete egin bihar da, politikan eta bizitzan. Uste dot Eibarrek une honetan beste lehentasun batzuk dittuala: berdegune gehixago, kale garbixaguak, enplegu gehixago eta hobia. Proiektu honek ez detsa eibartar gehixenen premiñeri erantzuten.

Eibarko benetako pasialekua bere kalietan barrena jun bihar da. Gure proposamena da Ego-Gain eta Azittain arteko kaliak oinezkue-dako bihurtzia. Eta, Barrena kalian, Gabilondoneko tallarra bota, erreki berreskuratu, eta Alfa-San Andresen egin zan moduan, Barrena ibaiertzeko pasialeku bihurtzia.

Trena estaltziak badakaz bere onurak eta kaltiak. Baina benetan uste dot herri osuandako hobia dirala Urkusua, Karmen, Barakaldo eta Barrena berreskuratuko daben proiektuak. Auzo bat birgaitzeko ezinbestekua da auzotarrekin harremanak onbideratzia.

Errebal Merkatu Plazaren auziak desilusia eta, kasu batzuetan, haserrea eragin du herritarren artean. Zein irakurketa egiten du zuen alderdiak?

Udala kudeatzeko ulertu bihar da herrixa Udalletxia baino gehixago dala. Proiektuak ezin leikez aurrera eraman jendiari bizkarra emonda. Urtiak pasau doguz Merkatu Plaziari buruz eztabaida publikuan, baina udal politikari gehixenak ez dira Merkatu Plazara gerturatu eta ez dabe bertakuekin zuzenian berba egin. Ezagutu barik ezin leike ezer defendatu. Merkatarixak modu eskasian tratau dittue urtietan eta, azkenian, plaza barrixan postu danak hutsik geratzia lortu dabe. Zorixonez, basarritar gehixenek hor jarraitu dabe, baina zailtasun mordua egon dira. Millioikadia kostau jaku eta gauza larregi galdu doguz bidian. Kaltia konpontzia ez da erreza baina, plazako bihar-giñekin batera, egingo dogu.

Zeintzuk izan beharko lirateke, zure ustez, Industriaren aldeko politikak?

Lehenik eta behin harremana. Alkarlan eskasa eskintzen detsa Udalak industriari. Oindiokan be Eibarren jarduera industrial potentia daka-

“Eibar inbersiño-aukerak galtzen ari da lurzoru industrialik eskintzen ez dabelako”

gu eta hori bultzatu bihar dogu: horretxek enpresok Eibarren gero eta gehixago sustraittu, orduan eta fruitu gehixago emango deskue. Baina harrigarrixa egitten jata alderdi politiko batzuen jarrera: industriaren alde daguazela esaten dabe, baina lurzorua eskintziaren kontra dagoz. Eibar inbersiño-aukerak galtzen ari da lurzoru industrialik eskintzen ez dabelako. Hiri Antolamendurako Plan Nagusi barrixan EAJ bakarrik geratu da industriaren defentsan. Danok batera egin bihar dogu industriaren alde, eta Erisono ez da nahikua. Erisonon 16 millioi euro sartu dauz Eusko Jaurlaritzak alde publikua garatzeko, eta urtero urtero 7 millioi emoten detsa Teknikerri. Espainiako Gobernuak millioi bakarra prometidu dau Teknikerren lurra urbanizatzeke. Udala ez da inplikatu eta, gainera, trabak jartzen ari da Azittango eta



Matsarixako industrialdiei zuku ataratzeko. Industriaren aldeko udal gobernu bat bihar dau Eibarrek. Hori da eskintzen doguna.

Nola uztartu daitezke, batetik, Eibarren oinezkoentzat espazioa lortzea eta, era berean, dagoen aparkaleku faltari erantzuteko neurriak aplikatzea?

Diglosi egoera batian euskeria eta gaztelania ez dagoz baldintza beretsuetan: oreka inposiblia da. Antzera gertatzen da hemen eta, zalantza barik, txixixari lagundu bihar jako: euskerian alde egitten dogun moduan, pertsonen alde egin bihar dogu. Apostu garbixa egin bihar dogu kalietatik ahalik eta trafiko gehixen kendu eta bizitzeko espaziuak berreskuratzeko. Gure aittitxa-amameke ezagutu zittuen horrelako kaliak eta hori da etorkizuna. Hori posible egitteko, 3.000 aparkaleku perimetraletik gora planteatzen doguz, auzo guztixetan aparkaleku-arazua behin betiko konpontzeko eta oiñezkuendako espaziua lortzeko. Helburua da gure kaliak eta auzuak leku hobiak izatia bizitzeko. Gure nagusixek eta gaztiek kalidazeko espazio publikuak merezi dittue. Gaiñera, frogatuta dago hori ona dala merkataritza eta ostalaritxandako. Paradigma aldaketa bat emoten ari da mundu osuan eta Eibar ezin leike gehixago geldirik geratu. Geldirik egotia, atzian geratzia da. Guk aurrera egin nahi dogu.

Hauteskunde ale berezia hilaren 29an

Bezperan egingo diren Udalerako eta Batzar Nagusietarako hauteskundeen Eibarko emaitzak eta nondik-norakoak auzoz-auzoko datu eta grafikoetan azaltzeaz gain, alderdietako gure herriko ordezkarien iritziak ere jasoko ditugu ale berezi horretan. Urteak daramatzagu horrelako ale berezia egiten gurean izaten diren hauteskunde guztietan eta, betikoari jarraituz, astelehen horretan, goiz-goizetik, ale berezi hori izango duzue eskura ohiko leku eta establezimenduetan.

Jarraian dituzuen babesle hauek lagunduko digute aurtengo zenbakia kaleratzen.



EMAN CONSULTING, S.L.

J. Etxeberria, 5 - solairuartera Tf: 943 200 336 / 943 200 069 Fax: 943 200 342 emansl@emansl.es

- **AHOLKULARITZA**
 - Laborala
 - Fiskala
 - Kontablea
 - Juridikoa
- **ASEGURU PRIBATUAK**



Larragest
INMOBILIARIA 697 258 966

F. Calbeton
22-24

Eibarko zure
konfiantzazko
Inmobiliaria



✓ HIPOTEKAKO GASTUAK ERREKLAMATZEN DITUGU
(Notaritzako, Erregistroko, Kudeaketako eta Tasazioko fakturen zenbatekoak)

✓ KREDITU TXARTELEN ZORRAK (REVOLVING) ERREKLAMATZEN DITUGU

✓ PENSIOAREKIKO AMATASUN KONPLEMENTUA ERREKLAMATZEN DITUGU

EZAGUTU ITZAZU ZURE ESKUBIDEAK

DONOSTIA 943577655 BILBO 944359684 GASTEIZ 945230570 EIBAR 943207463
BERGARA 943760350 OIÑATI 943718052 DURANGO 944360737

www.hidalgoabogadosyasesores.com



bista eder
horts klinika

bista eder
clínica dental · horts klinika

Deitu 943 70 00 82
bista eder, 19
20600 eibar
www.bistaeder.es

20 urte baino gehiago zurekin.
Profesional talde handi bat zure irribarra zaintzen.



eh
bildu

Arantza Mata (EH BILDU)

“Eibartarrek beraien bizitza proiektuak kalitatez Eibarren bertan garatzeko aukerak zabaltzea nahi dugu”

Zerk motibatu zaitu alkategai izateko zeure burua aurkeztera?

Erronkak gustoko ditut, nire herria maite dut, eta aukera eskaini zidatenean proposamena familian aztertu genuen eta baietza eman nuen. EH Bilduk duen proiektuarekin bat egiten dut eta hau defendatzeko prest nago. Gainera, arlo desberdinetako, oso prestatuta eta babesten nauen talde ikara-

garria dut alboan. Eibarko Udala gobernatzeko prest gaude eta alternatiba errealak EH Bildu da.

Alkatetza lortzen baduzu zein izango da egingo duzun lehenengo gauza?

Ospatu. Eta gure proiektua aurrera eramateko lanean buru belarri jarri. Noski, beste alderdiekin ere hitz eginda, eta herritar eta eragileekin hartu emanean. EH Bilduren

proiektua herritarrengan pentsatuta dago, herritarrekin gauzatzeko, herritarrentzat eta hiriarentzat.

Zuretzat zeintzuk dira Eibarrek gaur egun dauzkanez premia nagusiak? Eta zer planteatzeko duzu horiei erantzuteko?

Langabezia altua, desindustrializazioa, demografiaren bilakaera eta zaintzaren auzia, auzoen autonomia falta, gazteek emantzipatzeko dituzten zailtasunak, eraikin industrial hutsek paisaia urbanoan duten pisua, espazio publikoaren kudeaketa... Eta horiei erantzuteko hamaika proposamen ditugu. Lehenik eta behin, premiazko estrategia sozioekonomikoa martxan jarriko dugu, laneratzea eta berpizkunde industrialak helburu, beti ere komertzio txikia eta lehen sektorea ahaztu gabe; auzoetan adin guztietarako auzo etxeak egingo ditugu, auzoen autonomia eta kohezioa bermatzeko; Alokairu Sozialerako Udal Etxebizitza zerbitzua garatuko dugu, batez ere gazteei etxebizitza eskubidea bermatzeko; nagusientzat etxebizitza komunitarioak ere egingo ditugu, ohiko zaintza ereduak haratago; industria eraikin hutsen azterketa sakona egingo dugu, hauen eraispena hiria zabaltzeko edo hauen berrerabilera bultzatuko dugu zerbitzu berriak bertan kokatzeko, Gabilondon kasu; mugikortasunak, irisgarritasunak eta espazio publikoaren kudeaketa on batek Eibar bezalako hiri batetan garrantzi handia du eta oinezkoentzat diseinatuko dugu hiria, parke eta aisialdirako gune gehiagorekin. Azken finean, Eibar bizigarri bat nahi dugu, eibartarrek beraiei bizi proiektuak kalitatez Eibarren bertan garatzeko aukerak zabaltzea.

Euskal kulturak eta euskarak zein lehentasun daukate zeuen programan?

Kulturak eta, bereziki, euskal kulturak, zentralitatea du gure programan. Herriko kultur dinamika guztiz berpiztera goaz, eragile guztiekin batera. Kultura pasibo batetik kultura aktibo batera eta sorkuntzara salto egiteko ordua da. Gainera herritar kulturalak nahi ditugu, horregatik txikienetatik hasita kultur heziketa garatzea ezinbestekoa izango da. Kultur-disziplina ezberdinak probatzeko eta garatzeko aukera ireki nahi diegu haur eta gazteei. Txontan Udal Arte Eskola egingo dugu eraikin industrial eraberritu batetan.

Estaziño-Azitaín pasealekuaren proiektuak bizilagun askoren kezak eragin ditu. Zer daukazue proiektu horren inguruan esateko?

Pasealekuaren proiektua EH Bilduk herriko ekialdea guztiz eraberritzeko estrategia integral baten barruan kokatu du eta uneoro gure helburuak argiak izan dira: afekzioak ahalik eta gehien gutxitzea, irisgarritasun arazoak konpontzea eta Barrena eta Azitaín kaleetan pertsonen fluxua bermatzea. Gabilondoren eraldaketa inflexio puntu bat izango da. Auzoarentzako elkargune berria, aisialdirako espazioarekin, garapen sozioekonomikoa eta kultura uztartuko dituenak. Barrena eta Barakaldo kaleetako haur parkeak modu berri-tzailean diseinatuko ditugu, bertako familia, haur eta hezkuntza komunitatearekin batera. Eibarren hain beharrezkoa den lan aktibiorako eta akonpainamendurako bulegoa ere bertan irekiko dugu. Bestalde, Estatutik ere EH Bilduk 3 milioi euro lortu ditu Murrategi auzoa goitik behera eraldatzeko. Bertan,

“Kultura pasibo batetik kultura aktibo batera eta sorkuntzara salto egiteko ordua da”

erreka balioan jarri eta aisialdirako espazio handiak sortuko ditugu, beharrezkoak diren atonketak egingo ditugu bertako kaleetan, aparkalekuak... mila aukera irekitzen dira lortu dugun diru honekin. Ekialdea politiken zentroan jarri dugun alderdia gara eta apustu sendoa egin dugu. Auzoak aspaldi merezi zuen horrelako eskuhartze bat, eibartarren eta bereziki, auzotarren bizi kalitatea hobetuko du. **Errebal Merkatu Plazaren auziak desilusioa eta, kasu batzuetan, haserrearen eragin du herritarren artean. Zein irakurketa egingen du zuen alderdiak?**

Hasieratik kudeaketa beste bat izan behar zen, PSE eta PNVk Merkatu Plaza zaharra botatzea eta hango baserriar eta merkatariak bertatik ateratzea erabaki zuten. Pena, desilusioa, haserre... sentitu genuen, eibartarrok

asko maite genuen eraikina zen. Gogoratu behar dugu bi alderdi horiek tematuta egon zirela bertan makrozentro komertzial bat erakitzearekin eta ondorioak oraindik pairatzen ditugu. 14 urte horietan, Merkatu zaharrean eskaintzen ziren zerbitzu guztiak Errebal kalean bertan ireki dira. Gainera urte hauetan, supermerkatu kate handiei erreztasuna jarri zaie Otaolan kokatzeko. Gizartearen erosketa ohiturak ere aldatu dira. Guzti horrek zerikusia du Merkatu Plazaren egungo egoerarekin. Postuak ezin ireki, hutsik, nola bete ezin asmatuta. Gainera, zonalde soziokulturala ere dinamizazio baten beharrean dago. EH Bilduk dinamizatzaile soziokulturala kontratatuzko proposamena egin du, eraikina kultura polo berri eta traktore izateko.

Zeintzuk izan beharko lirateke, zure ustez, industriaren aldeko politikak?

Azken hamarkadan merkataritza erabat lehenetsiz egindako politikak ondorio larriak utzi ditu Eibarren. Ezberdintasun sozialen gorakada nabarmena eta sare industrialaren desegitea begi bistan daukagun errealitate gordinaren osagai dira. EH Bilduren estra-

“Eibarrek bere erreferentzia ekonomikoa berreskuratzea nahi dugu. Industriak aberastasuna dakar eskutik”

tegia sozioekonomiko berriak industriaren garapena izango du ardatz. Eibarrek bere erreferentzia ekonomikoa berreskuratzea nahi dugu. Industriak aberastasuna dakar eskutik. Industria enpresen galera nabarmena izan dugu herrian. Industriaren pisua Eibarko ekonomian (%19) Debabarrenakoaren erdia da (%38). Estrategia sozioekonomikoaren baitan berrindustrializazioak pisu nabarmena izango du. Hiru oinarritatik abiatuta eta baliabideak eskainita: Herrian dauden enpresak babestu eta deslokalizazioa ekidin; enpresa industrialak erakarri; eta nola ez, enpresa industrial berriak sortzea. Udalak partaidetza aktiboa izango du enpresa industrial berriak sortzeko. Gaur egungo zein



etorkizuneko beharrei erantzuteko. Guzti honetarako ere, beste administrazioetako babesa beharko dugu. Jaurlaritza, Aldundia, SPRI eta denon artean garatu beharko dugu, baita formakuntza zentroak ere kontutan izanda, Armeria Eskola bezala. Debabarrena suspertzeko ponentziatik etorriko diren proiektuek ere honetan lagungarri izatea espero dugu.

Nola uztartu daitezke, batetik, Eibarren oinezkoentzat espazioa lortzea eta, era berean, dagoen aparkaleku faltari erantzuteko neurriak aplikatzea?

Biak eskutik joan behar dira. Aspaldi ari da EH Bildu eskatzen hiriko sarreretan parking disuasorioak eraikitzea, Otaola, Matsaria eta Azitainen. Parkingak erdigunean eraikitzea, Ardantzaren kasu, hirigunea oinezkoentzat egitearekin ez doa bat. Autobus geltokiarren kokapena ere mahai gainean jarri beharreko gaia da. Oinezkoek premiazko espazioak behar dituzte Eibarren eta guk bide hori egingo dugu. Hiri bizigarria nahi dugula diogunean, hau da ardatzetako bat. Auzoen irisgarritasuna eta konexioa bermatzea ere garrantzitsua da.



Isabel Fdez. Pejenaute (ELKARREKIN PODEMOS-IU)

“Udal politikak pertsonengan zentratuko nituzke, eta ez adreilu eta porlanean”

Zerk motibatu zaitu alkategai izateko zeure burua aurkeztera?

Zinegotzi gisa nire lehen legegintzaldia izan denaren inguruko balantzea positiboa izan da. Egin dudana ona izan dela uste dut, ikuspegi feminista eta politika tradizionaletik asko ezberdintzen den ikuspuntuak eman ditut-eta. Askok ikasi dut Udalaren funtzionamenduari eta herritarren benetako premiei buruz. Gaur-gaurkoz, askoz

esperientzia handiagoa dut maila guztietan, eta nire ahalegin eta borroka guztia eskaini ahal diet eibartarrei. Horregatik animatu naiz alkatezarako nire hautagaitza aurkeztera. Gauzak aldatzea, nolako hiri-eredua nahi duen galdetzen duen jendearen konfidantza izatea espero dut.

Alkatetza lortzen baduzu zein izango da egingo duzun lehenengo gauza?

Lehenik eta behin, udal-politikak pertso-

nengan zentratuko nituzke, eta ez adreilu eta porlanean, sozialisten gobernuek 30 urte baino gehiagotan egin duten bezala. Eibarren degradatuen dagoen ekialdean hiri-berroneratze integrala egiteagatik hasita. Berdeguneak eta oinezkoentzako guneak indartuko genituzke, aukera dagoen zati guztietan Ego erreka desestaliko genuke, gure mendietan eukaliptoak hedatzea berehala geldiaraziko genuke eta erabili barik dauden eraikin industrialak erabilera publikorako azpiegiturak bilakatzeko eraldatuko genituzke. Hori guztia ez litzateke herritarren ongizaterako bakarrik izango, dagoeneko jasaten ari garen klima-aldaketa lehengoratzeko urrats garrantzitsua ere izango litzateke.

Zuretzat zeintzuk dira Eibarrek gaur egun daukan premia nagusiak? Eta zer planteatzen duzu horiei erantzuteko?

Zalantza barik, Eibarren daukagun arazo nagusienetako bat etxebizitzarena da. Hori dela-eta, etxebizitza publikoen parkea sortzea da gure proposamenetako bat. Hartu beharreko beste neurri garrantzitsu bat alokairuzko etxebizitzaren prezioari muga ipintzea

“Eibarko langabezia-tasak eskualdeko altuenak dira, horregatik herri mailako enplegu-plana egitea proposatzen dugu”

litzateke. Eibarko langabezia-tasak eskualdeko altuenak dira, horregatik herri mailako enplegu-plana egitea proposatzen dugu, emakumeak, gazteak eta gizarte-bazterketa egoeran daudenak kontratatzean arreta berezia ipinita. Beste arazo larri bat trafikoari eta aparkamenduari lotutakoa da. Hiri-barruko garraioa bultzatzearen alde egiten dugu, baita bizikletaren (betikoa zein elektrikoa) erabilera sustatzearen alde. Aparkalekuei dagokienez, erdigunea arinduko duten apar-kaleku perimetralen aldeko apustua egiten



dugu. Herritarren ohiko beste kexa bat gure hiriko zikinkeria da. Horregatik, kale-gar-biketa indartzearen aldeko apustua egingo dugu, gaueko garbiketa-txanda ezartzea bultzatuz, gailu eta ibilgailu elektrikoekin, jasangarriagoak izateaz gain zarata gutxiago egiten baitute. Gizartea kontzientziazteko kanpainak ahaztu gabe.

Euskal kulturak eta euskarak zein lehen-tasun daukate zeuen programan?

Euskera, euskal herritarren hizkuntza, zailtzarik gabe, gure ondare kultural eta ez-materialaren ondasunik baliotsuena da. Hizkuntza minorizatua denez, eta gaur egun ere, ingelesa nagusi den sare sozialen gorakadagatik etengabeko arriskuan dagoenez, gure betebeharra da hizkuntza horri eustea ez ezik, haren erabilera eta ikaskuntza bultzatzea ere, baita Eibarko euskalkiarena ere. Horregatik, beti eskatu izan dugu euskera ikasi nahi dutenek horretarako aukera izatea, dohainik. Ez bakarrik euskaltegietan, baita langabeentzako ikastaro trinkoak eskainita ere. Funtsezkotzat jotzen dugu, baita ere, gure haur eta gazteentzat euskarazko kultura-eskaintza handiagoa sustatzea. Izan ere,

beraiek bermatuko baitute gure hizkuntza ez dela galduko.

Estaziño-Azitin pasealekuaren proiektuak bizilagun askoren kexak eragin ditu. Zer daukazue proiektu horren inguruan esateko?

Hasiera-hasieratik, proiektu honen aurka egon gara eta, jakina, nahiz eta guk eskatu, ez zaie herritarrei galdetu. Seigarren solairu baten altuera parean pasealeku bat egiteak ez du inolako zentzurik, alternatiba bat egon badagoela ondo dakigunean: pasealekua Barrena kaletik egitea eta, horrela, inguru guztia hobetu eta biziberritzea. Are gehiago Udalak Gabilondoren eraikina erosi eta gero. Eibarrek ez du porlan gehiago behar, soberan daukagu eta.

Errebal Merkatu Plazaren auziak desilusioa eta, kasu batzuetan, haserrea eragin du herritarren artean. Zein irakurketa egiten du zuen alderdiak?

Desilusioa labur geratzen den hitza da. Haserrea. 14 urte obrak eta horien eragina jasan eta gero, eta milioika euroko gastuaren ondoren (bide batez, ezin izan dugu kostuaren zifra zehatza eskuratu), Eibarko Merkatu Plaza galdu egin dugula izan da emaitza. Horren ordez, porlanez inguratutako eraikin zatar-zatarra daukagu, sei postuko miniplazarekin, eta horietako lauk hutsik jarraitzen dute; talde sozialistak aldarrikatzen zuen “zonaldeko kultur-motorra” ez diren lokal gutxi batzuk; eta bakarrik kontzertueta-rako erabiltzen den plaza estalia, eta hori ere birmoldatu egin behar izan da, gainera, lehen kontzertua egin eta gero akustika txarra zela konturatu ziren-eta. Eta, hala ere, Iraola jauna “kudeaketa eredugarria” izan dela esaten dabil, eibartarrei barre eginda. Askok ahalegindu beharra dago gauzak okerrago egiteko. Ikaragarria.

Zeintzuk izan beharko lirateke, zure ustez, Industriaren aldeko politikak?

Ezin dugu jarraitu Eibarko industria inguruko herrietara alde egiten lagatzen, urteetan gertatzen ari den bezala. Adibide bat ipintzearren, hor dago Matsariako industrialdea. Eibarko enpresak bertara eramateko asmoz egin zen, baina bertako pabilioien neurrigabeko prezioengatik askok Eibartik

kanpora joateko erabakia hartu zuten. Gure enpresentzat arrazoizkoak diren prezioak eskaini behar ditugu. Enpresekin elkarlanean, horien lehiakortasunaren inguruko azterlan bat, teknologiak eta adimen artifizialak gaur egun suposatzen duten erronkei aurre eginez, egin beharko litzatekeela uste dugu. Eibarko Erakustazoka eratzea ere sustatuko dugu. Industria arloan, Eibar berriz ere erakargarria izatea lortu behar dugu.

Nola uztartu daitezke, batetik, Eibarren oinezkoentzat espazioa lortzea eta, era berean, dagoen aparkaleku faltari erantzuteko neurriak aplikatzea?

Bi horiek uztartzea posible izateaz gain, guztiz beharrezkoa dela pentsatzen dut. Eibar espazio librerik ez duen, automobilentzat pentsatuta dagoen hiria da. Zalantza barik, hori aldatu beharra dago. Pertsonentzat pentsatutako hiri baten aldekoak gara, pausoz-pauso egindako peatonalizazioekin, horrela pertsonentzat eta ez bakarrik ostalarien terrazetarako espazio publiko gehiago lortzeko. Pasiatzeko edo banku batean jarrita atsedean hartzeko aukera ematen duten parkeekin, ibilgailuek etenbarik sortzen dituzten ke eta zarata barik. Hori guztia hiri-garraioaren erabilera eta sustapenaren eskutik joan

“Ezin dugu jarraitu Eibarko industria inguruko herrietara alde egiten lagatzen”

behar da, automobila laga eta hiritik oinez ibiltzeak dauzkan abantailen inguruan herritarrak kontzientziatuz. Eta, automobila laga ahal izateko, aparkaleku perimetral publiko eta doakoen aldeko apustua egiten dugu. Horrekin batera, erabiltzen ez diren eraikin industrialak ere aparkaleku publiko eta doakoak eraldatzearen alde gaude, zoritxarrez horrelako eraikin asko aukeran dauzkagu-eta. El Corte Inglesaren eraikinetik hasita.



Julen Robles (PP)

“Nire helburua Eibarko distira berreskuratzea, inbertsioa erakartzea eta berriro erreferente ekonomikoa bihurtzea da”

Zerk motibatu zaitu alkategai izateko zeure burua aurkeztera?

Nire oroitzapenetako Eibar, gogoratzen dudan hiri hura berreskuratzeko gogoak. Hiri txiki baina zirraragarria, edozein hiribururen pareko giroarekin. Eibarrek potentzial handia dauka oraindik, noiz askatuko duten zain. Pertsonak beste guztiaren aurretik jartzen, bizilagunen kezkak zuzenean entzun eta artatzen dituen politikan sinesten dut. Eibarren, lehen begi-

kolpean ikusten ez diren errealitate asko daude, eta horiek ere aintzat hartzea merezi dute. Gure hiriak aurre egin beharreko erronkak ezagutzen ditut, eta badakit horien ondorioz batzuk alde egitea ere pentsatu dutela. Baina ziur nago hori aldatu dezakegula. Nire helburua da Eibarko distira berreskuratzea, inbertsioa erakartzea eta berriro erreferente komertzial eta ekonomiko bihurtzea, iraganean izan gina izateko berriz ere.

Alkatetza lortzen baduzu zein izango da egin-gau duzun lehenengo gauza?

Eibarko alkate edo zinegotzi gisa egingo nukeen lehenengo gauza nire hauteskunde-programa eskura eman nien herritar guzti-guztiak berriz bisitatzea izango litzateke. Dokumentu hori ez dela kanpainarako panfleto hutsa, haiekiko benetako konpromiso iraunkorra baino gogorazteko. Orduantxe indarrean sartzen den eta datozen lau urteetan mantenduko den kontratua. Beraien zerbitzari gisa ere aurkeztuko nintzateke, haien alde eta haiekin batera lan egiteko prest. Beraien kezkak entzuteko eta Eibar hiri hobea izan dadin nire esku dagoen guztia egiteko gertu. Niretzat hori delako politikaren funtsa: jendearen zerbitzura egotea eta elkarrekin lanean aritzea, Eibar hobea egiteko.

Zuretzat zeintzuk dira Eibarrek gaur egun dauzkan premia nagusiak? Eta zer planteatzen duzu horiei erantzuteko?

Eibarrek une honetan duen erronka nagusia aukera faltarena da. Baina ez dut arazo gisa ikusten, hazteko eta aurrera egiteko aukera gisa baizik. Jendea lanerako eta bere hirian inbertitzeko gogoz ikusten dut, eta hori Eibarrek ahalmen handia duen seinale da. Gure helburua inbertitu nahi dutenentzat eta ekintzaileentzat Eibar toki erakargarria bihurtzea izan beharko litzateke, fiskalitate bidezkoarekin, eta enpresak sortzeko oztopo burokratiko gutxiagorekin. Baina, aldi berean, ez ditugu ahaztu behar gazteak eta premia gehien dutenak. Horregatik, funtsezkoa iruditzen zait etxebizitza babestuaren eraikuntzan inbertitzea, bereziki gazteei eta baliabide gutxien dituzten pertsoneri zuzenduta. Etxebizitza egoki eta eskuragarriak, gazteei etorkizunerako aurrerzte ahalbidetzeko eta, aldi berean, ikasleak eta langileak gure hirira erakartzeko. Gauzak ondo egiten baditugu, urte batzuk barru Eibar bizitzeko leku oparoa eta erakargarria izateaz gain, jarduera ekonomiko eta kulturalerako gune ere izango da. Hiri handiekin lehiatzeko, lotarako hiria baino zerbait gehiago izateko asmoa izan behar dugu.

Euskal kulturak eta euskarak zein lehentasun daukate zeuen programan?

Gure nortasunaren funtsezko zatiak dira, Eibarren ez ezik Euskal Herri osoan. Nire hauteskunde-programan leku nabarmena dute, funtsezkoa iruditzen baitzait gure tradizioak, hizkuntza eta

kultura zaindu eta sustatzea. Hala ere, garrantzitsua da azpimarratzea gure kultura-nortasunaren defentsa ez dela zertan inposatu behar. Norbanakoen eskubideen errespetuan oinarritu behar da. Gure kultura eta hizkuntza sustatzeko ikuspegi inklusibo eta parte-hartzailean sinesten dut. Kultura eta hizkuntza aniztasuna balioetsi eta babestu beharreko altxorrek dira. Horregatik, euskara ikasi eta erabili nahi duten guztiak euskara eskuragarri izateko arituko naiz, baita gure ohitura eta adierazpen kulturalak ezagutzera emateko eta baloratuak izateko ere.

Estaziño-Azitain pasealekuaren proiektuak bizilagun askoren kezkak eragin ditu. Zer daukazue proiektu horren inguruan esateko?

Bizilagunek dituzten kezkak ulertzen ditugu. Tamaina honetako edozein proiektuk herritarren ahotsa eta izan ditzakeen ondorio guztiak kontuan hartu behar ditu. Politikak ez du inposizio-ariketa izan behar, adostasun eta lankidetzara ariketa baizik. Inplikaturako alde guztiak entzun eta guztien onerako konponbideak bilatzea da

“Funtsezkoa iruditzen zait etxebizitza babestuaren eraikuntzan inbertitzea, bereziki gazteei eta baliabide gutxien dituzten pertsoneri zuzenduta”

egokiena. Barrena eta Otaola hiribideari dagokienez, gure hirian bizimodua hobetzeko potentzial handia dutela ikusten dugu. Aukera dago Eibarko premia larrietako batzuei heltzeko, hala nola gure gazteentzako etxebizitza babestuei, baita gure tokiko merkataritza bultzatzeko ere. Eibarren kostarik edo erdigune historikorik ez badugu ere, gure erakargarritasuna sortzeko gaitasuna badugu. Gure hiriak merkataritza arloan potentziala dauka, eta gure kale komertzialak biziberritzeko inbertsioa erakarri beharra dago. Eibarrek asko dauka eskaintzeko.

Errebal Merkatu Plazaren auziak desilusia eta, kasu batzuetan, haserre eragin du herritarren artean. Zein irakurketa egiten du zuen alderdiak?

Proiektua, zalantza barik, etsigarria izan da askorentzat. Proiektu honek, Kirol Hiria edo Ipurua

II bezalako beste batzuk bezala, herritar guztien mesederako ez den politika egiteko modu bat erakusten dute. Asmo handiko proiektuak dira, baina, aurrerapena barik, nahigabea eragin dute. Gu administrazio koherente eta arduratsu baten alde gaude, herritarren beharrezko lehentasuna eman eta konponbide eraginkorrak bilatzeko. Errebalen gertatutakoa argitzeko eta kaltetutakoak konpentsatzeko ikerketa sustatuko dugu. Hortik haratago, asko dago hobetzeko, eta hori lortzeko gogotik arituko gara.

Zeintzuk izan beharko liriateke, zure ustez, industriaren aldeko politikak?

Tokiko industria bultzatzea gure programaren lehentasunetako bat da. Horretarako, industria-lurzoru eskuragarriko sarbidea erraztu behar dugu, eta ingurune lehiakorra eskaini. Potentziala duten industrialdeak ditugu eta, neurri egokiek, enpresa berriak hartu eta Eibarko jendearentzat enplegua sor zitzaketen. Gainera, gure hirian ezartzen diren eta tokiko langileak kontratatzen dituzten enpresentzako laguntza-programak ezartzea proposatzen dugu. Gure helburua Eibarko biztanle guztiei mesede egingo dien hazkunde ekonomiko



“Politikak ez du inposizio-ariketa izan behar, adostasun eta lankidetzara ariketa baizik”

iraunkorra sustatzea da. Laguntza publikoei dagokienez, benetan behar dituztenengana iristea bermatu behar dela uste dugu, hala nola desgaitasuna duten pertsonengana edo adinekoengana. Hala ere, garrantzitsua da lan egin dezaketenek eta egin behar dutenek lan egiten dutela ziurtatzea. Horretarako, lan-merkatuan parte-hartze aktiboa sustatuko duten politikak bultzatuko ditugu, eta laguntza publikoak esleitzeko irizpideak berrikusiko ditugu, helburua betetzen dutela ziurtatzeko. Eibarren asko dago egiteko, eta gure hiria garatzeko denon ekarpenaren beharra dago.

Nola uztartu daitezke, batetik, Eibarren oinezkoentzat espazioa lortzea eta, era berean,

dagoen aparkaleku faltari erantzuteko neurriak aplikatzea?

Zalantza barik, uste dut posible eta beharrezkoa dela gure hiriko oinezkoen eta gidarien beharrezko eraketa. Administrazio publiko guztien arteko plangintzan eta lankidetzan datza gako. Oinezkoentzat lagunkoiagoa izango den Eibarren aldeko apustua egiten dugu, espazio publikoak lehenetsiz eta gure hiriaz goza dezagun. Horretarako, hirigunea oinezkoentzat egitea proposatzen dugu, eta sarbidea bertan bizi direnentzat, taxientzat, autobusentzat eta motorrentzat mugatzea. Aldi berean, uste dugu aparkalekua arazo garrantzitsua dela eta horri aurre egin behar zaiola. Gure bizilagunentzako lurpeko aparkaleku hobaridunak sortu behar direla pentsatzen dugu. Horrelako proiektuek administrazio guztien konpromisoa eta lankidetzara behar dute, tokiko administrazioetik hasi eta estatukora arte. Egia da etorkizunak oinezkoentzako eredu baterantz jotzen duela, baina funtsezkoa da aldaketa hori oraindik ibilgailu partikularrean mugitu behar dutenak edo nahi dutenak zigortu gabe egitea. Denok Eibarrez gozatzea eta mugikortasuna erraztea ahalbidetuko duen oreka nahi dugu.



etxe-apainketa gehigarria

2023ko maiatzak 19

KOLOREAREN ITZULERA

Etxe batek, batez ere, nor zaren esan behar du, zure bizimodua adierazi. Espazioaren, altzarien eta koloreen banaketa aukeratzeko, moda eta joeretan pentsatu aurretik, nor zaren eta zer adierazi nahi duzun jakin behar da. Hala ere, adituek diotena kontuan hartzen badugu, zalantzarik gabe, datozen hilabeteetako berrikuntza handienetako bat kolore biziak bilatzea izango da, xehetasunetan ez ezik, elementu nagusi gisa ere.

Ausartzen al zara pintatutako paper batekin, mural batekin edo kolore biziko zorro nordiko batekin? Kolorearen itzulerarekin, gero eta etxe gehiagotan ikusten ditugu estanpatu geometrikoak eta lore-estapatuak. Etxe minimalistenetatik urrun, badirudi pintatutako paperak eta kontraste handiko tonuak itzuli direla gelari dinamismoa emateko. Kolorearen itzulera aldarrikatzen ari garen arren, etxe minimalistetan tonu oso leunak ikusten jarraituko dugu. Horietan beti bilatzen da objektu gutxi eta kalitate gorenekoak egotea.



Etxeak, bulegoak, tailerrak...

Kalitatezko lanak

Konfiantzazko zerbitzua

Idea bat duzu?
Zure ametsetako proiektua gero eta gertuago
Epeak beteaz, lasaitasunez, eta segurtasunez.

irazabal

943 120 108 www.irazabal.net eraikuntzak orratzariek gutzirik Azitain industrialdea, 3-H, EIBAR

GORTINA ERDI GARDENAK ALA OPAKOAK?

Zer da garrantzitsuagoa zuretzat: argi gehiago edo intimitate gehiago izatea? Zure lehenetasunen arabera, ehun arin batez egindako gortina bat interesatuko zaizu, lihoa edo kotoia bezala, edo gorputza duen modelo bat, erabat opakoa, belusarekin bezala. Lihoa bi aukeratarako material egokia da. Gramaje txikiago batean aukeratzen baduzu, gortina arinagoa eta zeharrargiagoa izango da. Liho landatar eta astunago bat aukeratzen baduzu, intimitate osoa lortuko duzu zure barruetan.

Gortina semiopakoek eraginkortasunez babesten dute argitasuna, eta pribatutasun handia bermatzen dute. Hala ere, argi natural pixka bat pasatzen uzten dute eta, beraz, perfektuak dira leihoak apaintzeko beste gortina batzuekin batera.

Zure egongela handia bada, beti jolastu ahal izango duzu gortina bikoitz baten instalazioarekin: bat soft eta zeharrargitsuagoa eta, gainetik, pisu handiagoko beste opako bat.



Erreforma integralak
Gremioen koordinaketa

REONOR
REFORMAS Y OBRAS DEL NORTE

Barrena, 14 Tf. 943 254 254



VENTANAS ONA[®] LEIHOAK
Bidebarrieta, 28 Tel. eta Faxa: 943 20 28 28
Mugikorra: 653 113 309 / 688 695 415
info@ventanasona.com / www.ventanasona.com

LAMINATUAK SUKALDEAN

Etxe osoa zoru berarekin estaltzea komeni dela esaten dugunean, zera galdetuko diozu zeure buruari: "Eta sukaldea eta komuna ere bai?" Bai. Laminatuak gela guztietarako balio du, eta zur naturala baino askoz errazagoa da mantentzeko.

Lurzoru laminatuek higadurarekiko erresistentzia handia dute, eta parket- edo zur-lurrek baino mantentze-lan txikiagoa eskatzen dute. Gainera, azken modeloek oso ondo imitatzen dute material hori, eta etxe osoan zoru jarraitua ahalbidetzen dute. Oso erakargarriak dira eta espazioak zabaltzen laguntzen dute.

Sukaldeak etxeko protagonista bihurtu dira egongelarekin batera. Erreforma integralek, hala nola look aldaketa txikiek, gora egin dute azken aldian: distira handiko pinturak, sukaldeko gainalde deigarriak, neurrira egindako etxetresna elektriko koloretsuak... Bazen garaia, sukaldeari behar zuen lekua ematen ari zaio.



URRATEGI
INTERIORISMO
barne diseinua

PROIEKTUAK
SUKALDEAK
BARNE DISEINUA

www.urrategiinteriorismo.com
Eibar Arregueta 27 Azpeltia Arretua 9

Arane, 6 -EIBAR- 943 20 61 64 / 943 17 19 73

F. PASCUAL

AROZTEGIA - EBANISTERIA
SUKALDE ALTZARIETAN ESPEZIALIZATUAK



FP
www.cocinaspascual.com

ALTZARIAK NEURRIRA
zure etxea, zure estiloa

ARMAIRU ENPOTRATUAK Zure mota guztietan Zure dekoraziora egokitu	SUKALDE ALTZARIAK Fabrikatzalesek gara 30 urteko gorako esperientzia
---	---

Zubiaurre, 36 - 38
 ERMUA
 943 17 68 28



VIRGINIA PASCUAL

/ 1964 estudio



interiorismoa
 proiektuak
 altzariak

jardifeta, 14 ff. 656756485 www.estudio1964.com

Teilatuak Fatxadak Sukaldeak Gremioen koordinazioa etab.

JORGE VEGA S.L.

IGELTSERITZA

F. Calbetón, 4 - 3. solairua





Tel. 943 20 83 26 eta 607 20 12 23 Tel. eta Faxa: 943 20 77 34 jorgevega.eibar@gmail.com



TERRAZA TXIKIA, BAINA IZAERAZ BETEA

Nortasun handiko espazioak gustatzen bazaizkizu, gehitu nortasun handiko aulki bat, irudikoa bezalakoa. Gainera, harizko altzariak modan daude! Eta ez duzu inbertsio handirik egin behar, oso imitazio onak daude prezio onean.

MAHAIAN KOLOREEKIN JOLASTU

Baxeretan zuria beti da apustu segurua, elikagaiak kolore horren gainera nabarmentzen baitira. Baina aldatu nahi baduzu, arriskatzeko aholkatzen dizugu, berdea, urre-kolorea, urdina edo arrosa bezalako tonuak baxeren azken joeretako batzuk dira eta zure mahaiari kolorea eman diezaiokete.



LANPARAK

Lanparak eta luminariak protagonismoa hartzen joan dira egongelako dekorazioan, puntu fokal bihurtu arte. Aspalditik, funtzionaltasunaz gain, espazioei estilo-plus bat gehitzen dieten diseinuak bilatzen ditugu, eta etxeko gela horretan, non jarduera desberdinak egin ohi ditugun, haien dekorazio-balioa are handiagoa da.



Artisautza-lanaren gorakadak, behera egin beharrean, indarra hartzen jarraituko du 2023an, eta material naturalekin eskuz egindako lanpara asko ikusiko ditugu: zuntz txirikordatuzko pantailak, larruz forratutako hormako aplikeak, lanpara bihurtutako beira tenplatuko damajuanak...



**FATXADA ETA TEILATUEN BIRGAIKUNTZA
BARNE-ERREFORMAK
GREMIOEN KOORDINAZIOA**



eraieder
since 2007



ERAIEDER, S.L.
Matsaria, 10
Tf. 943 200 453
info@eraieder.es
www.eraieder.es



NOLA GARBITU DUTXAKO MANPARA

- Baztertu produktu urratzaileak: lixiba edo amoniakoak.
- Ozpín zuriz garbitu: garbitzaile naturala da, eta ez du beira kaltetzen, ezta iluntzen. Garbitu, desinfektatu eta usain txarrak neutralizatzen ditu
- Kristalak garbitzeko espatula erabili ur-tantak eta xaboi-hondarrak kentzeko.
- Aukera itzazu bazter guztietara erraz iristeko moduko manparak.
- Ireki komuneko leihoak dutxa eman ondoren, airea joan dadin. Horrela, hezetasuna pilatzea saihestuko duzu, germenak ugaltzeko iturria baita.
- Tratamendu antikala kristal osoan aplikatu, produktuaren jarraibideei jarraituz.



A collage of images related to home renovation and construction. The top left shows a wooden model of a house on a blueprint. The top right shows the exterior of a modern house with a red roof and white walls. The middle left features a green banner with the JMR logo and text: "ISOLAMENDUAK ERREFORMAK ERAIKIN ERREHABILITAZIOA OBRAK ETA PROIEKTUAK". Below the banner is the contact information: "943 57 41 03 Txonta, 27 - behea www.jmr.eus". The middle right shows a modern kitchen interior with white cabinets and a wooden countertop. The bottom row contains three smaller images: a close-up of a wall detail, a bathroom with a stone wall and a bathtub, and a dining area with a white table and chairs.

Beste 1.696 euskarazko aitorpen gehiagoren bila

Apirilean hasi zen Errenta Aitorpena egiteko sasoia eta dagoeneko asko dira Ogasunarekin zita izan duten eibartarrak. Azken urteetako kanpainari jarraituta, Eibarko Akebai plataformak Errenta Aitorpena euskaraz egitea sustatu nahi du herritarren artean eta, aurten, gutxienez 1.700 aitorpen euskaraz egitea lortu nahi du. Gu euskaraz egingo duten lau lagunekin elkartu gara.



Lorea Urkia.

Eibarren Akebai plataformak eibartarren hizkuntza ohiturak aldatzea du helburu eta gauza txikietatik hasten da hori. Izan daiteke erosketak egiten ditugunean lehen berba euskaraz egitea edo, kasu honetan aztertuko dugun bezala, Errenta Aitorpena euskaraz burutzea.

Erakundeek urteak daramatzate helburu horrekin eta herritarrei izapideak euskaraz egiteko gauzak errazten, baina gero herritarrek egin behar dute hautua. Azken urteotako datuei begira, Eibarren gero eta lagun gehiagok egiten du euskaraz Errenta Aitorpena (iaz 1.603 lagunek egin zuten euskaraz) eta zifrak gora egitea dute helburu aurten. Hau da, 1.700eko langa gainditzea.

Teknizismoak arazo

Lorea Urkia izango da horietako bat. Irakaslea da bera eta Errenta Aitorpena aurrez aurre egin ohi du, hau da, modu mekanizatuan. “Errenta euskaraz egiteko ohitura dut, egunerokoan egiten ditudan gauza guztietan bezala. Euskara nire ama hizkuntza da eta euskaraz eroso sentitzen naiz. Adibidez, noan tokira noala, euskaraz egiten dut lehenengo berba”, kontatu digu Urkiak.



Ezkerrean, Miren Gisasola. Eskuinean, Aitor Muniozuren.

"Aukera dagoela ikusiz gero, jende gehiago animatuko litzateke"

Horrelako izapideak euskaraz egiteko orduan izan duen esperientzia azaltzerakoan onartu digu arazoak izan dituela noizbait. "Gertatu zait beste pertsonak euskaraz ondo ez jakitea, berak gazteleraz egitea eta, nahiz eta neure gogoaren kontra izan, gaztelerara jotzea", diosku Urkiak. "Beste batzuetan, nahiz eta euskaraz egin, berba batzuk nahiko teknikoak direnez, ez ditut ondo ulertzen, ez direlako egunerokoan erabiltzen ditudan berbak", gehitzen du.

Urkiak ezagutzen zuen Errenta euskaraz egiteko kanpaina eta, inguruko kasuei begira, bere gurasoena aipatu digu. "Euskaldunak dira, baina aipatutako teknizismo horiengatik gaztelerara jotzen dute, bestela ez dutelako ondo ulertzen", diosku. Beraz, gauzak hobetze aldera, proposamen bat du: "Teknizismo horiek albo batera lagatzea eta euskara herrikoiago bat erabiltzea, denontzat ulergarriagoa izan daitekeena".


Euskaraz egiteko hautua

Miren Gisasola ere irakaslea da, Bigarren Hezkuntzan hain zuzen ere. Azken urteetan Errenta Aitorpenaren proposamena jaso du Ogasunaren aldetik eta, bere esanetan, "onartu egin ditut eta kitto".

Hizkuntzari dagokionez, "orain dela hiru urte inguru euskaraz egiteko erabakia hartu nuen eta harrezkero proposamena euskaraz bidaltzen didate. Aurten ere dokumentu bakarra jaso dut eta euskaraz izan da", diosku. Gainera, Gisolak esan digunez, ez du inolako arazorik izan euskaraz egiteagatik.

Irakasleak ezagutzen zuen Errenta euskaraz egiteko kanpaina, baina ez daki etxeokoe zein hizkuntzatan egiten duten. "Nik Internet bitartez

"Aitorpena egiteko tresnak prest daudenez (sistemak, pertsonak), azkenengo erabakia norberak hartu behar du"



Jon Mardaras-

egin izan dut beti eta bertan ematen zidan euskaraz egiteko aukera. Beraz, Interneten edo aurrez aurre egin, galdetu beharko litzatekeen lehen gauza izan beharko litzatekeela uste dut. Pentsatzen dut aukera dagoela ikusiz gero, jende gehiago animatuko litzatekeela", bere iritziz.

Norbere aukera

Aitor Muniozguren lanbideak ere ikaskuntzarekin lotura du, baina berak IMH Campuseko administrazio arloan egiten du lan zehazki. Muniozgurenek, Urkiak bezala, Errenta Aitorpena aurrez aurre egiteko ohitura du, "baina gustatuko litzaidake proposamena jasotzea", diosku.

Azken urteotan Errenta euskaraz egin duela esan digu, baina likidazio orriaren eredu oso tekniko denez, "joan aurretik erderazko ereduarekin alderatzen dut badaepada ere. Horrela seguruago sentitzen naiz", aitortu digu.

Muniozgurenek ezagutzen zuen kanpaina hau eta bere ingurukoak ere jakinaren gainean daudela diosku. "Oso interesgarria da. Batez ere, aitorpena egiteko tresnak prest daudenez (sistemak, pertsonak), azkenengo erabakia norberak hartu behar duelako. Azken erabaki hori euskaraz egitea izatea bultzatzeko, oso egokia da kanpaina", bere iritziz.

Normaltasunaren seinale

Lehen biak bezala, Jon Mardaras ere irakaslea da. Errenta Aitorpena egiteko, batzuetan proposamena jaso du eta beste batzuetan aurrez aurre egin behar izan du, aurten bezala. "Oso ondo hartu gintuzten eta oso ondo azaldu zizkiguten dena, euskaraz gainera", esan digu. Izan ere, Mardarasek orain dela 10 urte hartu zuen Errenta euskaraz egiteko erabakia. "Egunerokoa euskaraz egiten dudalako erabaki nuen", bere berbetan.

Errenta euskaraz egiteko kanpaina ezagutzen zuen. "Azken bi urteetan gehiago entzun dut", diosku, baina ez daki ingurukoek zein hizkuntzatan egiten duten. "Kontua euskararen erabilera bultzatzea da eta, zenbakiak gora badoaz, sustatzen delako da. Zentzu horretan, garrantzitsua da administrazioan lan egiten duen jendeak euskaraz egiten duela bistaratzea", bere iritziz.

Laurek uste dute aurten 1.700eko langa gaindituko dugula. "Egunerokoa euskararen erabilera hainbeste ikusi ez arren, administrazioarekin dugun harremana euskaraz egin dezakegula ikustea ez da seinale txarra. Ea erronka gainditzen dugun eta zenbakiak gora doazen. Normaltasunaren seinale izango da", dio Mardarasek.

"Administrazioarekin dugun harremana euskaraz egin dezakegula ikustea ez da bide txarra"



**WE MAKE
DEBABARRENA!**

Herriko hiru ikastetxe ari dira We Make Debarrena! Erronkan lehiatzen

Debegesak We Make Debarrena! STEAM Erronka jarri du mar txan eta guztira 27 esperimentu jaso dira bidez. Ekimenak eskualdeko ikastetxeek kursoan zehar Zientzia eta Teknologiaren esparruan egindako proiektuak bil tzen ditu. Hala, ikasle eta zentruak STEAM bokazioak sustatzeko egiten duten esfortzua erakutsi nahi da. Erronka maiatzaren 26ra arte egongo da zabalik eta bideoak ikus teko esteka <https://bptdmakers.>

eus/steam-erronka/ da. Bi irizpide erabiliko dira irabazlea aukeratzeko, eta bakoitzak %50eko pisua izango du azken puntuazioan: “Alde batetik, bideoen ikustaldiak zenbatuko dira eta bestetik, epaimahai batek hautatuko ditu kategoria bakoitzean irabazleak, irizpide konkretu batzuen arabera. Parte-hartzaileen artean Eibarko hiru ikastetxe daude: Amaña LH, Arrateko Andra Mari eta La Salle Azitain.

Andretxea ezagutzeko bisitak eskainiko dituzte maiatzean

Maiatzean zehar Andretxea ezagutu nahi dutenentzat bisita gidatuak eskainiko dituzte, goizez eta arratsaldez. Goizeko bisitak 11:00etatik 12:30era izango dira astelehen eta eguaztenetan, eta 12:00etatik 13:00era barixakuetan. Arratsaldekoak, ostera, egun jakin batzuetan egingo dira: hilaren 23an, martitzena, 16:30etik 18:00etara; 25ean, eguena, 16:30etik 19:00etara; eta 30ean, martitzena, 16:30etik 17:30era.




Kafe kapsulak jasotzeko edukiontzi berriak jarriko dituzte eskualdean



Kafe kapsulak jasotzeko edukiontziak jarriko dituela iragarri du Debarreneneko Mankomunitateak. Emandako datuen arabera, iaz 5.325 kilo kafe kapsula jaso ziren Minigarbiguneetan eta, hori ikusita, horien birziklapena errazteko, 45 edukiontzi berri jarriko dituzte eskualdean, soilik kafe kapsulak jasotzeko, horietako 15 Eibarren. 2021eko martxoan ahalbidetu zuen Mankomunitateak kafe kapsulak minigarbiguneetan

jasotzeko zerbitzua, Nestlé enpresarekin sinatutako hitzarmenari esker. Dena dela, minigarbiguneetan orain arte emandako zerbitzuari eutsiko diote. Eibarri dagokionez, edukiontzi berriak kale hauetan ipiniko dira: Legarre, Tiburcio Anitua (bi puntutan), Sostotarren, Urki, Romualdo Galdos, Txaltxa Zelai, Txonta, Barakaldo, Bidebarrieta, Karmen, Barrena, Sautsi, Estaziño eta San Andres pasealekua.

TUTULUMENDI



Idurre Iriondo

LGTBIfobiaren aurkako aldarriekin bat egin du Udalak

Maiatzaren 17a LGTBIfobiaren Aurkako Nazioarteko Eguna dela-eta, Udalak bere egin du Eusko Jaurlaritzak egun horren harira zabaldutako manifestuaren edukia. Bertan jaso dutenez, “garrantzitsua eta beharrezkoa da erakundeek gogor eta aktiboki lan egiten jarraitzea LGTBI pertsonen aurre egin behar dieten oztopo erantsiak ezabatzeko”. Manifestuan aipatzen denez, “Maiatzaren 17an, ahotsa goratzen dugu (are gehiago) LGTBI pertsonen aurkako erasoak salatzeko eta pertsona bakoitzaren errespetuan eta askatasunean oinarritutako gizarte justua, berdintasuneko eta askotarikoa eskatzeko”. Eta, horren harira, zera dio: “Agerikoa da salaketak uga-

ritu izana LGTBI komunitateak urteetan jasan duen isiltasunaren isla baino ez dela”. Eta horregatik, beharrezkoa jotzen da “gure gizartean oraindik indarrean dauden diskriminazioen aurkako borroka sendotzen jarraitzea, askotan ikusezinak diren genero-identitate, -orientazio eta -adierazpen guztiak errespetatuz; gizarte osoaren erantzukizuna diskriminazio- eta indarkeria-mota guztien aurka borrokatzeko”.

Gorrito-intzidentziei irtenbidea
Bestalde, LGTBI kolektiboak eta atzerritar jatorriko pertsonen jasetan dituzten gorrito-intzidenteei irtenbidea emateko erakundeak garatzen ari diren ekimenen es-



parruan, Eibarko Udalak lanean dihardu Eusko Jaurlaritzak presatutako “Gorrito arrazista, xenofobo, LGTBIfobiko eta ijitoen aurkako gertakarien aurrean herri-mailan jarduteko gida”-ren edukia Eibarko errealitatera egokitzeko.



Europako Geoparkeen Astea ospatzeko egitarau zabala prestatu dute

Gaurtik hasita eta hilaren 26ra bitartean Europako Geoparkeen Astearen hamalagarren edizioa ospatuko da eta, beste batzuetan bezala, Euskal Kostaldeko UNESCOren Munduko Geoparkeak ekimenarekin bat egingo du. Horrela, hainbat ekintza egingo dira datozen egunotan Deban, Mutrikun, Zumaian eta, aurten estreina-koz, Zestoan. Euskal Kostaldeko Geoparkeak bi asteburu hartuko dituen egitaraua antolatu du. Prestatu duten programazioaren

baitan hitzaldiak, dokumental-emanaldiak, irteerak, museoetara bisitak eta topaketak egingo dira, besteak beste. Adin guztietako publikoarentzat pentsatutako jarduera ugari eskainiko dira, aukeran eta, kasu gehienetan, parte hartu ahal izateko aurretik izena eman beharra dagoela kontuan hartzea komeni da, toki barik ez geratzeko. Jarduera bakoitzari buruzko informazio zehatza Interneten, geoparkea.eus helbidean kontsultatu daiteke.

Pertsona Nagusien Partaidetzarako Mahaiaren sorrera sustatu du Udalak

Udalak Pertsona Nagusien Partaidetzarako Mahaia abiatzeko ekimena sustatu du, kolektibo horren parte-hartzea bultzatzeko eta haietzako gizarte-politikan elkarrekin jarduteko partaidetza-sistema sortzeko eta finkatzeko asmoz. Mahaia nola osatu eta nolako funtzionamendua izango duen zehazteko, Udalak Araudi bat egin du eta, jendaurrean ipini eta gero, Osoko

Bilkurak behin betiko onartzeko azken fasean da. Dokumentuaren arabera, Nagusien Partaidetzarako Mahaia Udal Administrazioaren aholkularitza- eta kontsultatresna ez-loteslea da, adinekoen politika sektorialak herri mailan gauzatzeko. Gainera, kolektiboak herriaren dinamikan aritzean, bete beharreko baldintzak betetzen direla zainduko du.

Kirol Patronatuaren udako igeriketa kanpainarako izen-ematea zabalik dago

Eibarko Kirol Patronatuak haurrentzat antolatzen duen udako igeriketa kanpainarako izen-ematea zabalik dago. 2020an eta aurretik jaiotakoentzat izango diren ikastaroak ekainaren 26tik uztailearen 21era bitartean emango dituzte eta, izena emateko, Ipurueta Orbea kiroldegietako atezaintzetara joan daiteke edo, bestela, eibarkiola.eus webgunean sartuta ere bete daiteke aurreinskripzioa, maiatzaren 28ra arte.



Sanjuanetan txosnak ipintzeko eskaerak hilaren 26ra arte egin daitezke

San Juan jaietan txosnak ipintzeko eskaerak maiatzaren 26ra arte aurkeztu daitezke, elektronikoki (Eibarko Udalaren webguneko "Tramiteak" azpiatalean sartuta) edo, bestela, presentzialki, Pegora Herritarren Zerbitzurako Bulegoan. Eskaerak nola aurkeztu eta bestelako informazioa ere bertan kontsultatu daiteke. Bestalde, itxaronaldiak saihesteko, hitzordua eska daiteke udal webgunearen bitartez (<https://hitzorduek.eibar.eus/pegora/eu>) edo telefonoz (940 70 84 00 / 010).



Orbea kiroldegiko garbitzaileek greba mugagabea hasi dute

Gureak Garbitasuna S.L. enpresako beharginek greba mugagabea hasi dute gaur. ELA sindikatuak salatu duenez, lan-hitzarmenaren inguruan enpresa horrek duen jarrerak bultzatu ditu greba egitera, “enpresak ez baitu negoziatzeko borondaterik erakutsi garbitzaile hauek dituzten lan-baldintzak eta Eibarko Udalak zuzenean kontratatutako langileek dituztenak parekatuko lituzkeen hitzarmen kolektibo bat sinatzeko”.



Eguen goizean banatuko dizkiete diplomak Esperientzia Eskolako ikasleei, Armeria Eskolan

Datorren astean, maiatzaren 25ean agurtuko dute 2022-2023 ikasturtea Debabarreneko Esperientzia Eskolako ikasleek, 11:30ean Armeria Eskolako aretoan hasiko den ekitaldian. Esperientzia Eskolako 18. promozioan Eibar, Mallabia, Soraluze, Deba, Elgoibar eta Ondarruko 26 ikasle (sei gizon eta 20 emakume) aritu dira eta kurtso-amaierako ekitaldian banatuko dizkiete diplomak.


Ekialderako proiektuei buruzko eztabaida publikoak askoren interesa piztu zuen

Errebal Plazak eztabaida publikoa hartu zuen eguazten arratsalde-gauean eta, bertan, Udal Hauteskuendetara aurkezten diren hautagaiek Eibarko Ekialderako dauzkaten proposamenak azaldu zituzten. Hain zuzen ere, gai horren inguruan aritzeko asmoarekin antolatatu zuten debatea Txontako La Plazoleta, Errebal Bizirik eta No al Paseo que nos entierra-Ekialdeari Bai auzo-elkarteek. Trenbide

gaineko pasealekuaren proiektuak alde eta kontra daudenen arteko eztabaida ugari eragin ditu azken hileotan, baita herritar askoren jakinmina piztu ere. Hori dela eta, jende asko gerturatu zen Errebalera, ordezkari politikoez zer esaten zuten entzutera. Josu Ibargutxi aritu zen moderatzaile lanetan eta, azkenean, saioak hiru ordutik gorako iraupena izan zuen, gaiak berak hala eskatzen zuen-eta.

Artean-Ix ikasgune feministaren saioa egingo da eguenean Ermuan

Maiatzaren 25erako “Chamínekin partekatzen” izenburuko saioa antolatu du Entreamigos-Lagun Artean-ek, Artean-Ix ikasgune feministaren baitan. Ermuko Eskilarapekon izango da, 18:00etatik 20:00etara, eta hizlaria Chahim Vasquez (Red de Sanadoras del Feminismo Comunitario Territorialeko kidea) guatemaldarra izango da.



Udaberritraila hilaren 28an jokatuko dute

Hauteskunde eguna aukeratu dute Kalamua Korrikalari Taldekoek aurtengo Udaberritraila egiteko. Hilaren 28an goizeko 08:30ean abiatuko dira Depor aurretik eta, “Galdaramiño eta Azkonabieta inguruetatik” 15,8 kilometro eta 680 metro goranzkoa duen “ibilbide erraz eta polita” eginda toki berean amaituko dute proba. Horretarako “bi ordu eta erdi inguru” erabiltzea aurreikusten dute. Trail irteera doakoa bada ere, antolaketara lana errazteko beharrezkoa da izena ematea, “kalamuakorrikalaritaldea@gmail.com helbidera idatziz”. Betiko lez, mendian fede-



ratua egotea gomendatzen da eta baita “mendian korrika egiteko oinetakoak, mugikorra, zira, ura eta jateko zerbait” eramatea ere.

Ibilbidea egiteko Unbera joko dute eta, Altamirako bidegurutzetik, Galdaramiñora igoko dute. Ondoren, Azurtza gainetik Arraotzeko bidegurutzera egingo dute eta, ja-

rraian, Karabietatik Azkonabitzara igoko dira. Hortik Basalgo alderako bidea hartu eta, pagaditxoia zeharkatuz, Arraotzetik Azurtzara jaisten den bidera irtingo dute. Gero San Salbadorrera joango dira eta, jarraian, Altamira baserriraino. Hortik Unbera zuzenean eta, amaitzeko, Deporrera berriro.

Domekan Orbean Ligako finaleko itzulerako partidua jokatu du Urbatek

Hiru partidutara jokatu den Euskal Herria Ligako finaletako lehenengoan Urbat-Urko tronik taldeak 12-11 galdu zuen Leioan Askartzarekin, azken segunduan jasotako gol baten erruz. “Penaltietara iritsi aurretik partidua ixteko azken erasoan atezaina ere erasora eraman genuen, eta jokaldia ez zitzaigun ondo atera” diote eibartarrek. Bueltako partidua irabaztera aterako dira Urbatekoak domekan, 17:45etik aurrera Orbeak hartuko duen partiduan. Bestalde, Askartzako igerileku berean jokatu zuen Eibarko taldeak baita Vigoren aurkako itzulerakoa: Galizia aldean gertatutakoaren antzera, oraingoan ere Urbat erraz nagusitu zitzaion Vigori (18-7). 2. Nazional Mailarako igotzeko azken kanporaketan



Mallorca izango du aurkari Urbatek eta euren arteko finaleko joanekoa hilaren 27an hartuko du Orbeak, 20:30etik aurrera.

Azkenik, zapatuan Orbean jokatuako kadete ligako partiduan Urbatek, “partidu ona eginda ere”, 8-9 galdu zuen Waterpolo Navararren aurka.

Peñek bazkaria eta kalejira antolatu dute zapatarako

Zapatuan foballeko SmartBank Ligako azkenaurreko jardunaldia jokatu da eta, hori dela-eta, multzoko partidua guztiak arratsaldeko 18:30ean hasiko dira. Eibar FT-k Xixongo Sporting hartuko du Ipuruan eta, hemen jokatu den ligako azken partidua dela aprobetxatuz, Eibar FT-ko peñek jardunaldi berezia antolatu dute egun horretarako. Untzagako jubilatutakoan bazkaria izango dute peñetako ki-deek eta, ondoren, elkarretaratzea egingo dute 16:30ean Txoko tabernaren parean guztiak elkarrekin Ipuruara kalejira igotzeko. Zortzi jardunaldi daramatza irabazi barrik Garitanoren taldeak eta ondo etorriko zaizkio zaletuen animoak.

Emakumezkoen Eibar FT Lehen Mailakoa da!

Gizonezkoen lehen taldeak baino azkarrago lortu du emakumezkoenak 1. Mailara itzultzea, aurreko denboraldian galdutakoa lehenengoko saiakeran lortu duelako berreskuratzea. RFEF 1. Mailan jokaturako azken partiduan eibartarrek husna berdindu zuten Granadan eta, eurekin berdinduta zeuden Deportivok eta Osasunak jokaturako partiduak



Martitzenean udaletxean hartu zituzten jokalariei eta teknikoei autobusa Ipu-

aurrera ez zuten ateratu, Yerai Martinek prestatzen dituenek denboraldi hasieratik zuten helburua gauzatu ahal izan zuten. Eibar 2019-20 denboraldian igo zen Ohorezko Mailara eta, bi denboraldi maila gorenean egon ondoren, 2022an beheara egin zuten. Datorren denboraldian Eibarrak bosgarren denboraldia izango du maila gorenean, 2009 eta 2011 artean emakumezkoen Superligan ere parte hartu baitzuen.

Egunean bertan hainbat zaletuk harrera beroa egin zieten taldeko jokalariei eta teknikoei autobusa Ipu-

ruara heltzerakoan. Eta martitzen arratsaldean omenaldia jaso zuten udaletxean, alkateak eta udal-taldeetako bozeramaileek egindako harrerarekin. Jokalariak, teknikariak eta Eibar FT-ko zuzendaritzako kideak izan ziren ekitaldian eta, alkatearen eta Amaia Gorostiza presidentearen zorionak jaso ondoren, balkoira irten ziren, Untzaga plazan batutako zaleekin ospatzera. Omentzeko ekitaldiek zapatuan izango dute jarraipena, gizonezkoen lehen taldeak Ipuruan Sportingean aurka jokaturako duen partiduan.

Zazpi domina Deporrekoko atletentzat Euskadiko Txapelketan

Aurreko asteburuan Donostiako miniestadioan jokaturako 18 eta 20 urte azpiko Euskadiko Txapelketetan Klub Deportiboko ordezkariak lan bikaina egin zuten, urrezko lau domina, zilarrezko bi eta brontzezko bat eskuratu. Imanol Egidazuk maila ikaragarria erakutsi eta, 400 metrokoan gailentzeaz aparte, 100 metrokoan eta 110 hesietakoan nagusitu zen. Enara Magunazelaiak xabalina jaurtikeren proba irabazi zuen, Nora Zabala (luzera jautsian) eta Izaro Bernedo (5.000 metroan) azpitxapeldun geratu ziren eta Kepa Marquezek brontzezkoa



bereganatu zuen disko jaurtiketan. 18 urte azpiko mailan Deporrekoei beste hiru ohorezko postu eskuratu zituzten eta 20 azpikoetan beste bitan izan ziren sei lehenen artean.

Bestalde, Eibarko beste lau atleta Espainiako ligako txapelketetan izan ziren: Kalaka Gonzalez eta Mikel Martinez Real Sociedadekin eta Garoa Magunazelaia eta Nora Zabala Atletico San Sebastianekin. Espainiako Trail txapelketan Euskadiko selekzioarekin parte hartu zuen Aitziber Urkiolak, azkenik, taldekakoan brontzezkoa bereganatu zuen.



Saskibaloiairen Jaia etzi Ipurua kiroldegan

Urterokoari jarraituz, Eibar Saskibaloiak bere egun handia ospatuko du. Taldeetako jokalariez gain, klubeko arduradunek “familietaoak eta lagunak ere” gonbidatu dituzte. Goizeko 09:30ean hasiko dira ekitaldiak eta arratsaldeko 15:30ak arte iraungo dute eta, “jai-giroan mutgiltzeko, taberna eta musika ere egongo dira”. Gutxi gorabehera bitan banatu dituzte hiru pistetan egingo diren saioak: eguerdira arte egingo direnak eta hortik aurrerakoak.

Goizekoan trebetasunak (09:30-10:15), tiroa (10:30-11:15), partidua (11:30-12:00) eta janordua (12:00-

12:30) eskainiko dituzte hainbat pistetan banatuta: behekoan eskola mailakoak arituko dira, berdean infantilak eta erdikoan kadeteak. Azken bietan, gainera, partiduetan gurasoek ere hartu ahal izango dute parte. 12:30etik 13:30era sariak banatuko dira eta argazkia aterako. Hortik aurrera juniorren eta seniorren ordua izango da, lehenengoak pista berdean eta bigarrenak erdikoan: bien kasuan hirukoekin hasiko dira (13:30-14:15) eta ondoren partidua jokatuko dute (14:30-15:00). Jarraian, 15:30ak arte, sariak banatu eta argazkia aterako dute.

Etzi jokatuko dira II. Euskal Jaia pala txapelketako finalak

Bigarren aldiz antolatu den Eibar-ko Hiria gomazko paleta txapelketa amaierara iritsi da eta final biak, herri mailakoa eta irekia, etzi jokatuko dira Astelena frontoian, 13:30ean hasi eta handik hiru ordu, 16:30ean, amaituko den jaialdian. Alde batetik, Becanak eta Sastrek osatutako bikoteak Ibarbia eta Urainen aurka jokatuko dute herri mailakoan eta, jarraian, Tota-Jurgi eta Zabala-Txirloi bikoteen neurturen dituzte indarrak maila irekian.

Klub Deportiboko pilota batzordekoek, bestalde, bi jaialdi prestatu dituzte Astelengan astebururako. Gaurkoak, 19:00etan hasita, bi partidua hartuko ditu, kaiola barruko lehen faseko azken jardunaldikoak, bietan zestoarren kontra: Azpiliketak Unanue izango du aurrez aurre eta Iraolagoitiak Agirre. Domekan 10:00etan hasita, bestalde, Conde Deporreko ordezkariak Donostiako Illunpe elkarteko Larrañaga izango du aurkari.

Kalamuako judoek 15 domina lortu zituzten Andorran

Espainia, Portugal, Frantzia eta Italiako ordezkariak izan ziren beste behin Andorran Hantei Judo Klubak antolatzen duen nazioarteko judo torneoan. Gure herriko Kalamuakoek 15 dominekin bueltatu ziren etxera, euretako bat urrezkoa (Josu Garro), lau zilarrezko (Uxue Gutierrez, Irai Ajuriagerra, Julen Martin eta June Valladares)



eta beste hamarrak brontzezkoak. Barixakutik domekara arte iraun zuen ekitaldiko azken egunean, domekan, hainbeste urtetan ber-

tan izandako eta orain dela gutxi hildako Manu Agirre zena omendu zuten eta bere alargunari busto bat eman zioten.

Asola Berriko Pedro Gomezek lider jarraitzen du Elgetako tiraldiaren bezperan

Aurreko zapatuan Aretxabaletan jokaturako 52. Gipuzkoako Hiru Txirlo Txapelketaren zortzigarren jaurtialdian 68 bolarik hartu zuten parte eta bertako Jose Luis Gorosabel nagusitu zen, sei txirlorakin. Bere atzetik sailkatu ziren Ganix Rodriguez eibartarra, Mateo Guenaga (San Andres) eta Unai Loiola (San Miguel), bostekin. Jardunaldi horren ondoren Asola Berriko Gomezek jarraitzen du lider sailkapenean, 31 txirlorakin, San Andreseko Lander Odiagaren aurretik (29 txirilo); Bittor Astigarraga eibartarra da hirugarren, 24rekin.

Bestelako sailkapenei begira, bikotekakoa oso parekatua doa, txirilo

bakarreko aldearekin lau daudelako: Asola Berriko Bittor Astigarraga eta Bittor Ugarteburu doaz aurretik, 44rekin, eta 43rekin jarraitzen diete Pedro Gomez / Gorka Unamuno taldekideek, San Migueleko Unai Loiola / Jabier Osoro eta San Andreseko Lander Odiaga / Oier Azurmendi bikoteek. Taldekakoan, Asola Berri A-k 11 puntuko aldea ateratzen dio San Miguel A-ri. Eta emakumezkoetan UDAko Isana Gorosabel da onena, beteranoetan Pedro Gomez liderra bera, benjaminetan Asola Berriko Ander Unamuno eta infantiletan, azkenik, Iosu Urkia. Bihar Elgetako bolatokiak hartuko du 9. tiraldia.



68 bolari izan ziren Aretxabaletakoan.



Emakumezkoen Mecalbe Eibar-ek indartsu hasi du Gipuzkoa Kopa

Andoni Perezek zuzentzen duen taldeak, ligan mailari eutsi eta gero, indarberrituta ekin dio Gipuzkoako Kopari, eta Oñatin jokaturako partiduan 25-37 irabazi zion bertako Construcciones Ugarte Aloña Mendiri. Garaipen itzel horrekin eibartarrek lidergoa eskuratu dute, Ameztoi Zarautzekin berdinduta postu horretan, azken horrek Leizaran Lanbroari irabazi eta gero.

Hurrengo jardunaldian lehen bi sailkatuen artekoa ikusi ahal izango da Ipuruan. Oñatiko partiduari dagokionez, Mecalbeko hamabi jokalarik lortu zuten gola, nahiz eta Irune de Castro eta Irati San Martin nagusitu ziren arlo horretan, bost golekin.

Gizonezkoen taldeak, bestalde, ez zuen liga modu onenean amaitu eta, Ipuruan Trapagaran taldeare-

kin 23-26 galduta, azkenean sailkapeneko laugarren postua galdu eta bosgarren amaitu du. Hori bai, golak ondo banatu zituzten taldekideen artean, arlo horretan Axier Gisasola nabarmenduz, bostekin gutzira. 1. Nazional Mailako multzo horretan Mikel Zuloaga eta Jon Barrietabeña golegileen sailkapeneko onenen artean izan dira, azkenean 2. eta 3. amaitzeko, hurrenez hurren.

Hemen dago Euskal Jaia! Inoiz baino azkarrago gainera! Gordeta ditugun gure baserriar jantzirik dotoreenak berreskuratu eta asteburu dantzan egiten pasatzeko aukera ezinhobearen aurrean gaude! Eskaintzen zaizkigun plana ere ez da nolanhikoa, adin guztietakoei egokitutako ekitaldiak eskaintzen zaizkigulako. Gaurtik domekara, "Kalian Jolasian"-etik "Larrain-Dantza"-ra aurkitu zureak. Euskal asteburu on!

Goazen asteburu pasa!

Eibarko Euskal Jaia 58. ediziora iritsiko da aurten eta, azken urteotako bidetik (pandemia atzean lagata), egitarauaren zatirik indartsuena asteburuan izango du erdigune. Oraingoan, hurrengo astean izango diren hauteskunderen eraginez, hilaren azken asteburutik astebete aurreratuta. **Gaurko** berritasunik handiena Tantan ez Tantan-ean izango dugu, orain arte zapatuetan egiten zen ekitaldia orain Euskal Jaia barruan integratu eta barixakura pasatu delako.

Arratsaldeko 19:00etan hasi eta 21:00ak arte egingo den ekitaldian "Urkusuko Itxurrian gantzilla urez bete eta Untzagaraiño eramango da, euskararen alde", Eibarko euskalgintzatik diotenez. Aurretik, hori bai, umeendako Kalian Jolasian egongo da Bizikleta Plazan, Eibarko Udalaren eskutik eta Astixako kideek gidatuta.



Untzagako karpak hartuko duen gaueko kontzertuan Burutik eta Mugi Panderoak joko dute: lehenengoak 23:00etan hasiko dute saioa eta bigarrenak 00:45etik aurrera jardungo dute.

Azoka T. Etxebarria kalean

Zapatu goizeko tarte Artisanu eta Baserriarren Azokak hartuko du, 10:00etatik 14:00ak arte. Horizango dira Eibart elkarteko hogeitabat postu eta, eurekin batera, gure herriko bost baserriko produktuegile. Ez dira faltako, ohikoa denez, herrikirolak, bertsolariak eta trikitilariak, euskal giro berezia sortzeko. Ezta

talopostua ere, Gure Esku Dago ekimenaren eskutik. Bitartean, Astelena frontoian Euskal Jaiko 2. Pala Txapelketako finalak jokatu dira.

Arratsaldean GOTx elektrotxarangak animatuko ditu kaleak 21:00etan abiatuko den kantu-afariari paso emateko. Horren amaieran Kittu musika taldeak eta Jainaga eta Narbaizak berotuko dute giroa goizaldera arte.

Behin domekara iritsita, eguerdian Urkizutik irtengo duen kalejirak Untzagan izango den Dantza Jaialdiari egingo dio tokia. Hor etxeko Kezka, Ermuko Txindurri eta Portugaleteko Elai Alai dantzataldeek jardungo dute. Herri-bazkaria izango da ondoren, 14:30ean. Behin arratsaldean sartuta, Ingueta taldeak erromeria eskainiko du asteburuari amaiera emateko dantzatuko diren Larrain-dantzaren bisaioren aurretik.

Euskal Jaia 58. edizioa beteko du oraingoan



MICE eta Su ta Gar saritu ditu Musika Bulegoak

Euskal Herriko Musika Bulegoak euskal musika panoramako urteko proiekturik esanguratsuenak saritu ditu, martitzenean Errenteriako Lekuona Fabrikan egindako ekitaldian. Lau musika-talde eta sei artistaren lana aitortu dute VII. Musika Bulegoa Sariak, eta sari horietako bi MICE (Miren Narbaiza) eta Su ta Gar eibartarrek eraman dituzte. Oreka TX, Merina Gris, Neomak, Ines Osinaga, Teresa Catalan, Enrike Solinis, Elena Setien eta Kepa Junkera izan dira beste sarituak. Guztira hamar sari banatu dira, inolako mailaketarik gabe. (Argazkia: Olga Ruiz).



Andoni Agirrezabalarekin literatur-tertulia martitzenean

Martitzenean egingo da Idazlearekin Harixa Emoten euskerazko irakurketa-klubaren maiatzeko saioa, Portalean. Juan San Martin liburutegiak eta ...eta kitto! Euskara Elkarteak elkarlanean antolatutako tertulian Andoni Agirrezabalak hartuko du parte, *Etxe berdea* bere liburuari buruz hitz egiteko. Ainhoa Aldazabalek dinamizatuko duen saioa 19:00etan hasiko da.



Banatu dira Ipurterre literatura lehiaketako sariak

Martitzen goizean banatu zituzten aurtengo Ipurterre Ipuin eta Gutun Lehiaketako sariak, Coliseo antzokian. Eskolekin elkarlanean ...eta kitto! Euskara Elkarteak antolatzen duen lehiaketak XXIX. edizioa bete du aurretan. Eibarko LH eta DBHko ikasleek 1.000 lan inguru aurkeztu dituzte eta hauek izan dira irabazleak: LH1-2 mailan Udai Mallagaray (San Andres); LH3-4 mailan Iñigo Carrion (Aldatze); LH5-6 mailan Malen Vega (J.A. Mogel); DBH 1-2 mailan June Paguey (La Salle Azitain), eta DBH 3-4 mailan Jone Alcalde (La Salle Azitain). Sari-banaketa ekitaldia girotzeko Tor magoa etorri zen beste behin ere Eibarrera, eta aho bete hortz utzi zuen bat baino gehiago bere trikimailuekin.

Argazkilaritza tailerra eta rallya

Eibarko Klub Deportiboren eskutik martxan dagoen Argazkilaritza Maiatzean egitarauaren barruan, bihar Txema Lacunzaren *Argazki moldaketa* tailerra egingo da



Arrate Kultur Elkartearen, goiz eta arratsaldean. Eta domekan, berriz, urteroko argazki rallya, zuri-beltzean eta digitaletan. Izen-ematea 08:30etik 09:30era egin ahal izango da, Klub Deportiboan.

“2100 Kaxa” dantza saio bikoitza



Datorren astean, egunean eta baxakuan aurkeztuko dute “2100 Kaxa” ikasturte amaierako dantza emanaldia Kaxa mugimendu eta sormen espazioko ikasleek, Coliseo antzokian. Emanaldiak 19:30ean hasiko dira egun bietan eta sarrerak 3 euro balio du.

ZERTXOBAIT ERRAZAGOA

3	9		2				
7		1		6	8		3
					4	7	8
8				1			
		7			4		
			7				1
2		3	1				
	8		5	4		3	7
					2		5
						5	6

B	L	E	R	P	E	R
B	E	R	E	R	E	R
B	E	R	E	R	E	R
B	E	R	E	R	E	R
B	E	R	E	R	E	R
B	E	R	E	R	E	R
B	E	R	E	R	E	R
B	E	R	E	R	E	R
B	E	R	E	R	E	R
B	E	R	E	R	E	R

soluzioa

S
U
D
O
K
U

ZERTXOBAIT ZAILAGOA

9			2				6
	6				9	2	
2			1			4	
	4	3	9			1	
			6	7			
		5		3	9	6	
		9		6			4
		6	4			8	
4					8		5

soluzioa

B	L	E	R	P	E	R
B	E	R	E	R	E	R
B	E	R	E	R	E	R
B	E	R	E	R	E	R
B	E	R	E	R	E	R
B	E	R	E	R	E	R
B	E	R	E	R	E	R
B	E	R	E	R	E	R
B	E	R	E	R	E	R
B	E	R	E	R	E	R



AURKITU 10 EZBERDINTASUNAK



Maiatzak 19/25

BARIXAKUA 19

EUSKAL JAIA

17:00/19:00 Kalian Jolasian, Udalaren eskutik.

Eibarko Bizikleta plaza (euria egingo balu, Errebalen).

19:00/21:00 Tantanez Tantan. Urkusuko iturrian gantxilla urez bete eta Untzagaraino eramango da, euskararen alde. Eibarko euskalgintzaren eskutik.

23:00 Kontzertuak: Burutik eta Mugi Panderoa (**00:45**). Untzagako karpa.

ZAPATUA 20

SASKIBALOIAREN JAIA

09:30/14:00 Saskibaloi-partiduak, jolasak, lehiaketak, zozketak, sariak...). Ipurua kiroldegia.

ARGAZKILARITZA MAIATZEAN

10:00/14:00 eta 16:00/20:00 "Argazki moldaketa" tailerra, Txema Lacunzarekin. Arrate Kultur Elkarte.



EUSKAL JAIA

10:00/14:00 Artisanu eta baseritarren azoka. Eibart elkartearen, Eibarko baseritarren eta Debemenen eskutik. Toribio Etxebarria.

10:00/14:00 Eibar BHI-ren erronka: Txirridularitza solidarioa, Gautena elkartearen alde.

12:00/14:00 Herri-kirolak eta bertsolariak. Goiz osoan talo-postua. Toribio Etxebarria.

13:00/15:00 Trikipoteoa, Eibarko Trikitilariekin, kaleetan zehar.

13:30/16:30 Eibarko Euskal Jaiko 2. Pala Txapelketa (finalak). Astelena frontoia.

19:15/21:30 GOTx Elektrotxaragaren kale animazioa, herriko kaleetatik.

21:30 Kantu-afaria, Biziminak prestatuta. Kittu taldeak joko ditu kantuak. Ondoren, erromeria, Jainaga eta Narbaizarekin. Untzagako karpa.

DOMEKA 21

ARGAZKILARITZA MAIATZEAN

08:30/09:30 Argazki-rallyrako (zuri-beltza eta digitala) izen-ematea. Klub Deportiboa.

EUSKAL JAIA

12:00 Euskal Jaiko kalejira, Urkizutik Untzagaraino. Dantza ikuskizuneko talde guztiak, gaiteroak, joaldunak, Eibarko Musika Eskolako eta Jainagaren eskolako trikitilariak.

12:30 Euskal Jaiko dantza jaialdia, Eibarko Kezka, Ermuko Txindurri eta Portugaleteko Elai Alai taldeekin. Untzaga (euria egingo balu, Errebalen).

14:30 Herri bazkaria, Biziminak prestatuta. Untzagako karpa.

17:30 Erromeria, Inguma taldearekin. Untzaga.

19:30 Larrain-dantza popularra. Untzaga.

20:00 Larrain-dantza popularra. Deportibo parea.

EGUAZTENA 24

HITZALDIA

08:09 Ikasten elkartearen eskutik: Oiartzun-Arditurri. Bazkaria eraman. Trenaren irteera ordua, Ardantzatik (**08:11** Estazioan).

ANTZERKIA

15:00 "Harri salda" (Engruna Teatre). Eskolarteko 38. Antzerki Erakusketak ikastetxe-entzako. Coliseo.

LITERATURA

19:00 Idazlearekin Harixa Emoten! Andoni Agirrezabalaren "Etxe berdea". Portalea



DANBORRADA

19:00 Umeen entsegua. **20:00** Helduen entsegua. Beistegi eraikina (Bittor Sarasketa).

EGUENA 25

ODOL-EMATEA

16:50/20:50 Odola ematera joateko saioa, odol-emaeleentzat. Untzaga jubilatutik etxera.

DANTZA

19:30 "2100 Kaxa", ikasturte amaierako emanaldia. 3 euro. Coliseo.

ERAKUSKETAK

Maiatzaren 28ra arte

ARGAZKILARITZA MAIATZEAN:

- ENRIC DE SANTOS, NATXO ZENBORAIN, ROBER ASTORGANO, AITOR ARANA (Portalea)
- OSKAR BAGLIETTO (Topaleku)
- Eibarko Klub Deportiboko ARGAZKI TALDEA (Portalea taberna)
- ARGIZAIOLA 2022 (Portalea taberna)
- XL: NAZIOARTEKO GIPUZKOA SARIA (Untzagako jubilatutik etxera)

Irailaren 1era arte

"TAILERRETIK BULEGORA. EIBARKO PRODUKTUAK".

(Armagintzaren Museoa)

Eskualdeko Agenda

ELGOIBAR

19an (BARIXAKUA)

DANTZA ERAKUSTALDIA

19:00 / Kalegoen Plaza

Euskal dantzari bakarlariak

21ean (DOMEKA)

KONTZERTUA

12:30 / Aita Agirre

Luca Grassi

ERMUA

19an (BARIXAKUA)

ANTZERKIA

20:30 / Ermua Antzokia

"Juicios sin prejuicios"

DEBA

20an (ZAPATUA)

ERROMERIA

23:00 / Foruen Plaza

Akerbeltz

21ean (DOMEKA)

DEBARREN EGUNA

Egun osoko egitaraua

Luca Grassi

ZINEA COLISEO

1 ARETOA

- **20an:** 19:45, 22:30
- **21ean:** 20:00
- **22an:** 19:30

"Fatum"
DRAMATIKOA



2023/Espainia / 91'
Zuzendaria: Juan Galiñanes
Aktoreak: Luis Tosar,
Alex Garcia, Elena Anaya
Thriller-a / Lapurketak

2 ARETOA

- **20an:** 16:30, 19:30, 22:30
- **21ean:** 17:00, 20:00
- **22an:** 19:30

"Las ocho montañas"
DRAMATIKOA



2022/Italia / 147'
Zuzendaria: Felix V. Groeningen
Aktoreak: Luca Mafrinelli,
Alessandro Borghi, Filippo Timi
Drama / Adiskidetasuna

ANTZOKIA

- **20an:** 16:30 (1), 19:30, 22:30
- **21ean:** 17:00 (1 Aretoa), 20:00
- **22an:** 19:30

"Fast & Furious X"
AKZIOZKOA



2023/AEB / 130'
Zuzendaria: Louis Leterrier
Aktoreak: Vin Diesel, Jason
Momoa, Michelle Rodriguez
Automobilismoa / Sekuela

ANTZOKIA

- **20an:** 17:00
- **21ean:** 17:00

"Patti y la luna de Poseidón"
ANIMAZIOZKOA



2022/Frantzia / 95'
Zuzendaria: David Alaux
Abenturak / Mitologia / Familia girokoa



Jose Luis Lage Agüero

1. URTEURRENA
2022/05/22

"Etxekoak gogoan zaitugu"

- ZURE FAMILIA -



FUNEUSKADI
Grupo Ansoa

TANATORIO EIBAR

FUNERARIA MUGICA
Funerariak

FUNERARIA MUGICA

TANATORIO GHEMATOBO

24 orduko zerbitzu iraunkorra T. 943 201 951
www.funeuskadi.com

<p>Eibar: Otaola, 27</p> <p>Eibarko bulegoa: Bidebarrieta, 20</p>	<p>Elgoibar: Xixillon, s/n. SIGMA Industrialdea (Olasoko hilerriaren ondoan)</p> <p>Ernuako bulegoa: Marqués de Valdeleón, 16</p>
---	---

Eibar · Elgoibar · Ernuak · Bilbo · Barakaldo · Leioa · Getxo · Sestao
Portugalete · Santurtzi · Basauri · Galdakao

688 62 76 89

publizitatea@etakitto.eus



Zure senide edo lagun bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da **...eta kitto!**-n. Zorion-agurrak **etakitto.eus** webgunean ere argitaratzeko aukera daukatzue.



Zorionak, **MAIALEN**, domekan 3 urte beteko dozuz-eta. Ondo ondo ospatu!!! Etxeko guztion partetik.



Zorionak, **MIKEL**, hillaren 17xan 6 urte egin zenduaz-eta!. Musu haundi bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak, **MARKEL**, gaur 3 urte betetzen dozuz-eta. Musu haundi bat famelixa eta, batez be, zure arreba Mirenen partez.



Zorionak, **EDER**, martitzenian 6 urte bete zenduaz-eta. Asko maite zaittugu. Ireni, aitta eta amaren partez!



Zorionak, **HELENE** Garcia-Pascual Ramos, atzo 4 urte bete zenduaz-eta. Famelixa guztiaren partez.



Zorionak, **HUGO!** Gaur 4 urte beteko dozuz-eta. Asko maite zaittugu, txapelduntxi! Musu haundi bat etxekuen partez.



Zorionak, **ANNE** Lasuen, gaur 6 urte egitten dozuz-eta! Ze bizkor pasatzen dan denporia. Aitaxo, amatxo eta Markelen partez.



Irribarrez eskuzabala eta beti maitakorra. 6 urterekin danok zorutzen gaittuzu. Zorionak, **UXUE!**



Zorionak, amore, dantzan ospatuko dogu bixar. Maitte zaittugu. Patxo potolo bat, rubia.



Zorionak, **JANIRE**, 13. urtebetetzian. Munduko maittagarrixena zara. Zuregaittik dana emongo leukien zure gurasuen partez.

Zure publikitatea
herriko aldizkarian

688 621 535
publizitatea@etakitto.eus

646114443 · kili_klik

killimaksortzen@gmail.com · Indalecio Ojanguren 1

Iragarki laburrak



943 20 67 76
publizitatea@etakitto.eus

Atal honetako iragarkiak doan dira, etheen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako PREZIOAK, beti ere 4 ASTERAKO, honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. Iragarki guztiak etakitto.eus webgunean ere argitaratuko dira.

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskakerak
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

1. ETXEBIZITZA

1.1. Salgai

- Pisua salgai Legarre dorrean. 626719802.
- Pisua salgai Txaltxa Zelai kalean. 2 logela, sukaldea, egongela eta komuna. 5. pisua, igogailuarekin. 677592475. Joseba.
- Pisua salgai Zuloagararren kalean. 7. solairua. Fatxada eta teilatua berritu berriak. 235.000 euro. 660378181.

1.2. Errentan

- Pisua alokagai Eibar erdialdean. 688667994.

4. LANA

4.1. Lan bila

- Emakumea eskaintzen da umeak zaintzeko. Esperientziarekin. 625200924.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. 608401590.
- Mutila eskaintzen da edozein lanetarako. 667425331.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko eta sukaldari-laguntzaile bezala. 617630178.
- Neska euskalduna eskaintzen da umeak zaintzeko. Esperientziarekin. 691632453.

- Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak zaintzeko. Esperientziarekin. 665508721.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Orduka. Esperientziarekin. 632415374.
- Kanpoko etxe-zerbitzuan esperientzia duen neska do-noستيarra Eibarko etxeetan lan egiteko eskaintzen da. Euskal sukaldaritza tradizionala eta osasunekoa. Mendekotasun-egoeran daudenei laguntzeko teknikari titulua. 699473761. anaulia71@gmail.com

4.2. Langile bila

- Bertiz kafetegi eta okindegi baterako titularra behar dugu. Beharrezkoa: autonomoetan alta ematea eta euskeraz egitea. Lokal guztiz egokitua, eguneko ordutegia eta bermatutako onurak. 622370200. Yarighouse@gmail.com
- Zerbitzaria behar da Eibarko Guridi tabernan. Euskeraz egin eta esperientzia duena. 634277015.
- Fisioterapeuta (edo osasun arlokoa) behar da Eibarko klinika baterako. Curriculumuma bidali: urreibar@hotmail.com
- Emakume euskalduna behar da umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. 699024156.

- Elgoibarko baserri baten edadetua zaintzeko pertsona behar da. Kurso sozio-sanitarioa eginda eta paperekin. Interna. 653723095.


5. IRAKASKUNTZA

5.2. Eskaintzak

- Matematika, Fisika eta Kimika klase partikularrak ematen dira LH, DBH, Batxilergo eta Selektibitatea prestatzeko. Gehienez lau laguneko taldeak. Urteetako esperientzia. 615705945. Iratxe.
- DBH eta Batxilergoko klase partikularrak ematen dira. 678937827. Patrizia.
- DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak, Fisika, Kimika... klaseak ematen dira. Banakako edo 2-3 ikasleko klaseak. Goizez ikasteko aukera. 677592509. Alberto.



Axola zaizun informazioa
inoiz baino **gertuago**



etakitto.eus





**Bizitzak ez
du preziorik.**

*Para que las facturas
no nos condicionen
la vida.*

**Maite
duzun
Gipuzkoa**

Mejorar para avanzar



ehbildu

**EGINGO
DUGU.**